

Rosane Serrano Lemoako eskubaloi joklariaren denporaldi bikaina

17 urte gaz joan zan lemoaztarra Guardes talde galziarrera jokatu eta lehenengo denporaldian, Erreginaren Kopako azpitxapeldun eta European Cup-eko txapeldun moduan bueltau da Lemoara uda pasetan, hurrengo denporaldirako Galiziara bueltau aurretik. **15. orrialdea**



Arantzazu, Bedia, Dima eta Ubideko jaiak



Bagilaren bigarren hamabostaldian sanjuanak eta sanpedroak ospatzen dira, Arantzazu, Bedia, Dima eta Ubideko jai patronalak. Halanda be, ez dira jaigune bakarrik izango. Igorreko San Juan auzoan eta Zeanuriko Altzua eta Undurragan be egingo dira jaiak-ta, berbarako. **5. eta 7. orrialdeak**

Iñaki Garcia Gorbeialdeko ikerlariagaz alkarrizketea

Iñaki Garcia Gorbeialdeko ikerlariak zizelauta dagoan JEL handi eta altuena topau eban kasualidadez Egiriñan eta honen gainean sakon berba egiteko tartea izan dogu BEGITU. Zizelautako "Jaungoikoa eta Lege-zaharra"-ren esangureaz, inskripzioaren egilez eta aurkikuntzearen garrantzia historikoaz egin ahal izan dogu berba beragaz. **11., 12. eta 13. orrialdeak**



ARRATIA

Monumentu erlijiosoaren katalogoa aurkeztuko da Zeanurin

Eleizbarrutia Arratiako Monumentuen Katalogoa lantzean ibili da eta emaitzak, bagilaren 26an aurkeztuko dira Zeanuriko parrokiaren. Eleiz eta ermita guztien katalogoan, hainbat aurkikuntza interesgarri egin dirala aurreratu dau Raquel Cilla Bilboko Eleiz Museoko zuzendariak. **17. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Udari ondoetorria emoteko suak

Udako solstizioa edo San Juan bezperea, tradizio paganoa eta kristaua buztartuta, ospatutear dagoz gure herri eta auzoetan. Bagilaren 21ean Lemoan eta bagilaren 23an gainontzeko herrietan izetuko dira suak eta aurretik, Artean zein Lemoan, sasoi honeetako mito eta tradizioak ezetuteko berbaldiak dagoz. **8. orrialdea**

LEMOA

Bizkaiko Erromeria Eguna Lemoan



Igaz Durangon izandako arrakastearen ostean, urri bigarrenaren 17an ospatuko da Lemoan erromeriaren formatu eta kontzeptu guztiak batzean dauzan jaia. Lemoan egin barri da aurkezpen ekitaldia eta hasi dira aurreratutako eguneko zehaztasunak. **9. orrialdea**


GANGUREN
psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus


GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Literatura txokoa

MEDIUM

Ibaizabal ertzetako misterioa. Bilbo. 1903. XX. mende hasikerare. Hurrengo hamarkadak baldintzatuko dabezan ideologia bi ermetzen dabiz. Batetik, abertzale-tasuna, Sabino Aranak bultzatua. Bestetik, sozialismoa, Pablo Iglesiasek bultzatua eta meategietan, Bizkaiko ezkerlalde eta industria-guneetan errotzen dabilana. Hau da testuingurua. Bilbo erabarrizten dabil, arkitektonikoki, uri moderno bat izatearen bidean. Guzti honek nerabe dan Sara Hazparne mediumak ikusiko dauz. Bera, 1891n jaioa, umezurtz geratzen da. Ama hil jako, aita erbestean dabil lanean. Beraz, egoerari aurre egin behar deutso eta benetan abila danez, guzurretan fin eta gaitasun sozial handiakaz,

dramatizatze berezko senagaz, medium bulegoa zabaltzea otu jako. Epalza andreak bere zerbitzuak kontratatzerakoan, ostera, ustebakoa jasoten dau Sarak. Benetako espiritua agertu eta Epalza alarguna hil egingo da. Profezia beteterakoan, poliziak Sara dauka jomuga. Hilketaren misterioa argitu beharko dau errubakotasuna frogatzeko. Hamabi urteko neskato horrek arma bi daukaz ostera: kaleko umeen laguntzea eta Gallartatik datorren Dolores, ume expositoen sustengatzaile eta langile nekabakoa. Holan ba, plano bi nahastu dabez Etxeberria anai gidoilariak eta Iñaki Holgado marrazkilaria, benetan jazo ziran errealidadeak deskribatuz (Bilboren garapena, arkitektura eta

uri hazkuntzea, pobrezia, klaseen arteko talka...) eta dibertigarria besteko misteriotsua dan trama. Han hor hemenka, Conan Doyle ala Dickensenak dirudien gauzak hartuz, baina baita Bolaños ala Fred Vargasenak. Aspaldion, komiki munduan goraka doan generoa da historia eta errealismo magikoa buztartzen dauana, eta liburukitxo hau horren adierazle dogu. Badauka azpimarratzeko beste ertz bat, izan be, amaierarik ez izatea gustauko litxakigunoi, ezinbestean, bigarren atal bat eskatuko geunskie egileei. Bai, jakin bada-kigu ez dala erraza, baina aukera balego, eskertuta gengokez. Baita Dolores eta Sara be. Ibaizabal ertzean ikusiko gara.

@fantomastxiki



Xabier eta Martin Etxeberria Garrok idatzia eta Iñaki G. Holgadoaren ilustrazioak

Medium

Elkar Argitaletxea, 2025

68 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 15etik 18ra

Traver Ibañez. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano (13-19). Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 19tik 21era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya (20-26). Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 22tik 28ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Melero (27-03). Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 29tik garagarilaren 5era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkarteak

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioritza 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordurik behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Araitz Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Arratia ez dadin deskonektuta geratu

Arratiako alkateei eta Eusko Jaurlaritzako arduradunei zuzentzen naitzue, gure haranak sufriduten dauan egoera tamalgarria salatzen. 2026. urtean gagoz, baina badirudi gure haranean garapen teknologikotik kanpo bizi garala. Izan be, fibra optikoaren zerbitzuak etenbarik egiten deusku huts, eta egoera honek jasanezina izaten jarraitzen dau.

Joan dan hilebetean bakarrik, bost aldiz geratu gara zerbitzu barik; horreetako batzutan 20 ordu baino gehiagoz izan gara ezelango konexino barik. Batzutan, konexinoa etorri eta joan egiten da, modu intermitentean, eta horrek lan egitea edo edozein kudeaketa egitea ezinezko bihurtzen dau.

Galdetzen dogu: zergaitik sufridu behar dogu egoera hau? Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuriko bizilagunok gure zergak eta IBla ordaintzen doguz, uriguneetan bizi diranen

baldintza bardinetan. Ez dogu onartzen bigarren mailako herriarrak garanik, ez eta gure konexinoa Gorbeiaiko kurtzean egongo bagina bezain kaskarra izaterik be.

Operadoreek ez dabe erantzun argirik emoten, eta gure harana abandonauta sentiduten dogu. Horregaitik, eskatzen deutsegu gure udalei eta Eusko Jaurlaritzeari, arazo honetan esku hartzeako.

Berehala egin dagiela gure haraneko fibra optikoaren sarearen auditoria tekniko bat.

Operadoreei exijidu deieela beharrezko inbersinoak egitea (mantentze-lanak, modernizazioa eta sarearen egonkortasuna bermatzeko).

Jasan doguzan zerbitzu-etenakaitik kalte-ordain justuak bermatzea, horrek zuzenean eragiten baitetuzo gure tokiko ekonomiari eta familien bizikaldideari.

Ez dogu gura konponbide "partxeaua", soluzino iraunkorra baizik. Gure herrietan bizi garenok, beste edonoren pareko zerbitzuak jasoteko eskubidea dogu. Arratia deskonektuta geratzea ez dogu onartuko.

DANIEL REGIL

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, berbik@begitu.eus eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: berbik@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ

Lemoa Gure Txirindulari Elkarte

Alkarteak hamalau urte baino gehiago daroaz herrian txirindularitza sustatzen eta herriko kirol-eragile garrantzitsuenetako bat bihurtu da urteotan. Alkarte ofizialki 2012ko martxoan eratu bazan be, jatorria 2011n dago. Urte haretan, Lemoako hainbat txirindulari zalek batzar bat egin genduan herrian txirindulari alkarre bat sortzeako aukerea aztertze.

Hasieran 30 bazkide inguru zituan alkarre eta oin 90 baino gehiago daukaz; horrek erakusten dau txirindularitza Lemoan daukan indarra eta alkarrearen osasun ona.

Alkarteko lehenengo presidentea Jose Felix Aldekoa Saez izan zan, eta gaur egun presidentea Josu Goienetxe da. Urte guzti honeetan, alkarre hasikerako helburuei eutsi deutso: Lemoako txirindulari zaleentzako topagune izatea eta bizikletearen erabilera eta kirola sustatzea.

Domeketako urtekerak izaten dira jardura nagusietako bat, baina atzen urteotan harrobia lantzeari be garrantzia handia emon jako. Holan, 2021ean txirindularitza eskolea martxan ipini zan, 7 eta 14 urte arteko neska-mutilei zuzenduta. Bertan, txirindularitza oinarritzeko teknikak ikasteaz gainera, ahalegina, errespetua eta taldekidetasuna moduko baloreak lantzean dira.

Azpimarratzekoa da, halaber, andran presentzia gero eta handiagoa dala alkartean, eta horrek erakusten dau kirol hau gero eta zabalagoa eta inklusiboagoa dala gure inguruan.

Hamarkada bat baino gehiago igaro ondoren, Lemoa Txirindulari Elkarteak etorkizunari ilusinoz begiratzen deutso, txirindularitza egazko zaletasuna bizirik mantentzen duaz eta herriari zein gazteei lotutako proiektu barriak sustatzen jarraituz.

ERETXIA

Faxismoari ez! Euskal Herria irabaztera

Urte kongresuala bizi izan dogu Ernaiko kideok aurten eta hurrengo lau urteetarako bideorria prest daukagu. Maiatzaren 9an emon geuntsan amaiera prozesuari Bergaran eta bertan egon ginan Arratiako hainbat gazte independentista. Konpromiso nagusi bitan berretsi ginan bertan, Euskal Herriagazko konpromisoan eta gazteagazko konpromisoan. Alde batetik, nazino auzia erdigunean ipintera goaz. Termino independentistetan gazteria politizau eta gazte olatu independentista bat sortuko dogu. Beste alde batetik, gazteok daukaguzan nahi, behar eta kezka politizau eta eztabaidearen erdigunera ekarriko doguz. Ernai zabal bezain zentru bat behar dogu horretarako, Euskal Herriko gazte independentista orok bere sentiduko dauan eta testuinguruaren irakurketa egoki bat eginaz, zorrotasunez erantzuteko gaitasuna eukiko dauan Ernai bat. Ernai egiten dogu gure etxe eta eskola, horregaitik gonbidapena luzatu gura deusagu Arratiako gazte independentista orori Euskal Herri aske, sozialista eta feminista baten alde Ennaira batzeako.

Garai ezegonkorak bezain erabakigarriak bizi doguz. Gerra eta askotariko zapalkuntzak dira gure eguneroko albiste. Kapitalismoan metaketa fase baten amaiera eta beste fase barri baten hasieran kokatuten gara eta honek, Euskal Herria bidekurutze baten kokatuten dau. Ezegonkortasun garai honek gainera, eraldaketarako potentziala prozesu askatzai-leetan gorpuztu beharrean, sistema kapitalistaren parametroetan mantentzeko olatu erreazionario guzti bat dauka martxan. Olatu honek, jentearrearen zentzu komuna ultra-



ARRATIAKO ERNAI

Gazte Antolakundea

eskoirantza mobidutea eta sistema honen oinarritzeko printzipioak ezartea dauka helburu.

Arratian be ez gagoz olatu erreazionario honetatik salbu. Honen adibide dira atzen hileetan Lemoan zein Igorren zabalduetako diskurso arrazistak edota mobimentu feministaren eta mobimentu transmarribollorearen indarrez kendutako pankartak.

Asko egiten da berba faxismoaz atzen urteetan eta hau ondo ezaugarritutea beharrezkotzat jotzen dogu. Olatu erreazionarioa fenomeno politiko bat dan bitartean, non herri sektore zabalaren pentsamentuan eragin eta ultraeskoirantza bultzatuteko anbizioa daukan, faxismoa ideologia konkretu bat da, zein lurralde eta testuinguru konkretu bakoitzean forma berezitua hartzean dauan. Euskal Herrian, faxismoak espainolismoaren eta jakobinismoaren forma konkretua hartzean dau. Hau holan baina, esan beharra dago be bai, hemen badaukagula faxismoaren kontrako horma indartsu bat eregita eta hau holan bada, hainbat militanteren lanari esker, burrukaz burruka horma hori sortu dalako da. Horregaitik ipinten dabe faxistek Euskal Herria jopuntuan.

Euskal Herrian, faxismoari erantzuteak, proiektu emantzipatzaile oso baten formea hartzean dau. Horregaitik, urrats bat aurrera egin, herri hau ezker-eskoi astindu eta askatasunaren aldeko bidean ipiniko dogu. Gazteok burruka honen lehen lerroa hartuko dogu eta urri lehenengoaren 13an Donostiako kaleak gazte independentistaz beteko doguz. 13:30ean Bulebarretik hasiko dan mobilizazioan argi esango dogu faxismoak Euskal Herrian lekurik ez daukala eta Euskal Herri aske, sozialista eta feminista bat eregiten segiduko dogula.



LUMATUTEN**ARANTZA
ETXEBARRIA****Bildur txikiak**

Lagun bategaz berbaz ibili nintzan aurrekoan, ia bildurra zer dan guretzako. Zenbat modu dagozan bildurra ikusteko, ulertzeko eta biziteko. Bildurra neurtu ezin dan kontu bat dala esan genduan, eta konparau be ezin dirala egin bildur bi, arrazoi berberak eragindakoak izan arren.

Eta hor hasi ginan gure hausnarketak alkarbanatzen, aztertzen zelan bizi izan dogun bildurra gure ikuspuntutik. Zelan edo zergaitik sentidu genduan akorduan daukagun lehenengo bildurra? Zelan gaintitu genduan? Bildurra hurrekoei zeozer pasetako; bildurra lagunakaz "fetxoriaren" bat egiteko; bildurra gaubeko ordu txikitik etxera heldu eta etxeakoak konturatzeko; bildurra zuk gura dozunak ez begiratzeko eta gura ez dozun besteak, ostera, bai; bildurra erratzeko; bildurra azterketak egiteko; bildurra zorrotzegi dagoan mendipuntaren batera igoteko...

Eta gogora ekarri genduan baita be lagunaren alabeak lehenengo pausuak galapan egin guran, etxeko korridore estuan estropozu egin ebanekoa eta lagunak sentidu eban bildurra. Eta bildur hori zelan bilakatu zan eta beste forma bat hartu eban alabeak urteak bete ahala. Gaur egun alabeak berak bere bildurrak daukaz, eta lagunak beste bildur batzuk, guztiz desbardinak, baina bildurrak atzen baten.

Bildurra sentiduteko arrazoia barru-barruan egon leiteke, kanpoko zeozerk eragindakoa izan leiteke, edo estrukturala. Eta guztiek baldintzatzen dabe bizitzea, norberarena eta ingurukoena. Eta bildur horreek guztiek katean ekarten dabez albo-ondorioak, eta eragiten dabez egonezinak eta sufri-mentuak. Dana dala, bildur horreetako asko bizitzak berez dakarzan aldaketen ondorio baino ez dira izaten, eta bildurra baino gehiago izaten dira ziurbakotasunak. Eta, jakin badakigu aldaketak, askotan, onerako izaten dirala epe luzean.

Oindino ez dot ezetu bildurrik ez daukan inor nire inguruan. Nik galdetu egiten deusat bateri eta besteari, bildur bako personeagaz bat egin gura dot-ta, eredu eta kriseilu moduan hartu eta haren pausuari segiduteko. Ekin-a baragarria danez, bazterrak nahasten segiduko dot, bildurrak alde batera itxita, barru-barruan sartuta daukadaz bildurrak zelan garaitu erakusten deustan personea topau arte.

ZERTZEAN**JON PELAEZ****BEGI TXINDORRA**

Urteko gau laburrenak ailegetan diranean, Arratia, Ubide eta Zeberioako bazterrak argi beroz betetan dira. Udako solstizioak milaka urtetatik ekarri dauz suaren inguruko errituak: eguzkiaren indarra ospatu, uzta oparoak eskatu eta gaitzak ke artean erre. Mendeek aurrera egin dabe, eta kristautasunak bere egin eban sua, eleizea orduko pagano horreetara hurbilduteko asmoz. Antxinako errituen eta fede kristauaren arteko zubi dira sugarren jantzak, ez basoko izakietan ez Jaungoikoan sinisten dabenak be berotuteko gai. Izan be, sua ez da bakarrik beroa eta argia. Komunitadea batu, oroitzapenak zaindu eta geroari begiratzeko atxakia be bada. Urten ba, 21ean zein 23an, auzotar zein herritarrekaz uda oparo bat eskatutera!



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgaitza Zerbitzuak: 900
R.P.S. 21/06

Bagilaren 19an bajatuko dira Jone eta Jon Beringa Bedian

Sei egunez luzatuko dira Bediako sanjuanak, hilaren 24ra arte.



Asier Abrisketa

Hiru hamarkadako geldialdiaren ostean, hirugarren urtea izango da Bediako jaiak hasikera emoteko Jone eta Jon

Beringaren jatsiera ospatzen danetik. Hortik aurrera eta txupinazoagaz batera, trikitilarien musika hasi eta Bedia jai giroan lehertuko da sei egunez. Aurten ez da gaueko kontzer-

turik egongo, erromeriak eta DJak bakarrik.

Horrezaz gainera, mantentzen dira daborduko historikoa dan -aurten hamargarrenez-Antxinako Autoen eta Motorren Erakusketea, XVII. Paella Lehiaketea, umeentzako puzgarri eta jolasak zein San Juan bezperako eta San Juan eguneko ohiko programazioak, besteak beste.

Bagilak 19, barikua

19:30ean, txupinazoa, trikitilariak eta Jone eta Jon Beringaren jatsiera.
20:00etan, La Otra Kalle taldearen kontzertua.
21:30ean, Jauziri taldearen jantzaldia.
23:00etan, Nonahi erromeria.
02:00etan, herri selfiea.
Gero, DJ Gose ta Sue.

Bagilak 20, zapatua

12:00etan, XVII. Paella Lehiaketearen hasikerea.
14:00etan, paellen aurkezpena.
16:30ean, kantuz kantu bingoa.
17:00etan, umeentzako tailer eta buruhandiak.
17:00etatik 19:00etara, Gune Morea: sensibilizazio eta prebentzio tailerra.
19:00etan, El Tardeo Salsero.
22:30ean, Aittu erromeria.
24:00etan, feministen manifestua.
02:00etan, DJ Salseo.
02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa.

Bagilak 21, domekea

X. Antxinako Autoen eta Motorren Erakusketea.
10:00etatik 11:30era, izen-emotea eta erakusketea.
11:30ean, ibilbidea.
12:00etan, erakusketea.
13:00etan, sari banaketak.
12:30ean, pintxo potea txosnetan.

19:30ean, Pergola orkestea.

Bagilak 22, astelehena

12:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak.
17:00etatik 19:00etara, umeentzako puzgarriak eta bitsa.

Bagilak 23, martitzena

19:00etan, Tortillen Lehiaketako hasikerea.
20:00etan, tortillen aurkezpena.
20:30ean, herri afaria.
21:30ean, Gauargi erromeria.
22:30ean, playback-ak.
23:00etan, Gauargi erromeria.
24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, eguaztena

12:00etan, meza nagusia.
17:00etan, XXXVIII. Briska Txapelketea.
19:00etan, Goitibera konpainiaren *Eraitsi S.L.* antzezlanak.
20:00etan, txokolata eta jaien amaierako txupinazoa.

Ganaderuek botako dabe Dimako jaietako txupina

Bagilaren 25etik 29ra, San Pedro eguna, ospatuko dira jaiak.

Asier Abrisketa

Dima laster murgilduko da sanpedroetan eta herriko abeltzainak izango dira txupina botateko arduradunak. Bost egunez egongo da herria jaietan eta tartean, poteoak, herri afari eta lehiaketa gastronomikoak, umeentzako jolasak, herri kirol eta euskal jantzak, bertso-saio eta bakarriketak, zein kontzertuak egongo dira. Atzen honeek Andoni Ollokiegi, Sarkidi, Pote Oi, Naxker, Perlata, Biznaga eta Hausten taldeen eskutik.

Bagilak 25, egunena

18:00etan, herri kirol desafioa Harriti taldeagaz.
19:00etan, txupinazoa Dimako ganaderuen eskutik.
19:30ean, bafflepotea.
21:00etan, herri afaria.
23:00etan, kontzertuak: Andoni Ollokiegi eta Sarkidi.

Bagilak 26, barikua

12:00etan, umeentzako jolasak.
18:00etan Jaietako Eskupelota Txapelketako finalak.
19:30ean, txarangea.
23:00etan, kontzertuak: Pote

Oi, Naxker eta DJ Lira.

Bagilak 27, zapatua

12:00etan, umeentzako jolasak.
11:30ean, Tortilla Txapelketea.
14:30ean, totillen aurkezpenak.
19:00etan, bafflepotea eta taloak.
22:30ean, kontzertuak: Perlata, Biznaga eta Hausten.
00:00etan, euskal errepresaliduen giza eskubideen aldeko ekitaldia.

Bagilak 28, domekea

11:30ean, Gazte Barri jantza taldearen jantzaldia.

12:00etan, LGTBQA+ harrotasunaren aldeko argazkia.
12:15ean, herri kirolak.
14:30ean, Paella Txapelketako aurkezpenak.
18:30ean, bertso-saioa Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Oihana Bartra eta Maider Arregigaz.
19:30ean, bakarriketak: Julen Pagazaurtundua, Mirari Martiarena eta Manex Astigarraga.

Bagilak 29, astelehena

12:30ean, mezea.
14:00etan, jubiladuen bazkaria eta 85 urtetik gorakoentzako omenaldia.



Auzoetan be ospatuko dira sanjuanak eta sanpedroak

Asier Abrisketa

Arantzazu, Bedia, Dima, Ubi-de... asko dira aukerak, baina herrietan bakarrik ez, auzoetan be ospatuko dira jaiak datozen egunetan.

Altuako sanjuanak

Bagilak 21, domekea
12:00etan, txupinazoa.
12:30ean, jantzari eta txistulariak.
14:00etan, auzo bazkaria.
18:00etan, bola-jokoa.

Bagilak 23, martitzena

20:30ean, sardina-jana eta txokolata.
Gero, San Juan sua.

Bagilak 24, eguaztena

12:30ean, mezea.
Gero, barauskarria eta errifen zozketea.

San Juaneko jaiak (Igorre)

Bagilak 20, zapatua
12:00etan, txupinazoa.
Gero, Ardi-txakur Lehiaketea eta Marmita Lehiaketako izen-emotea.
13:30ean, Igel Txapelketea.
14:30ean, marmiten aurkezpena.
17:30ean, bingoa.
19:30ean, mariatxiak.
21:00etan, erromeria Joxe Mari Mendizabalegaz.
00:00etan, berakatz-zopea.

Bagilak 23, martitzena

18:00etan, umeentzako jolasak Zaztaparrakaz eta arku tiro ikuskizuna.
19:00etan, sardina-jana eta Ardoa Barrura fanfarrea.
22:00etan, San Juan sua.
Gero, suziariak.

Bagilak 24, eguaztena

12:00etan, mezea San Juan ermitan.
Gero, herriko trikitilariak.

Undurragako sanpedroak

Bagilak 26, barikua
Iluntzean, jaien hasikerea eta txitxiburduntzia.

Bagilak 27, zapatua

11:30ean, Umeen Bola Txapelketea.
13:00etan, poteoa San Pedron.
14:30ean, auzo bazkaria.
18:00etan, Miren eta Roberto Etxebarria trikitilariak.
Gero, danontzako jolasak.

Bagilak 28, domekea

12:00etan, igel eta txapel jaurtiketa jolasak San Pedron.
18:00etan, Undurragako VIII. Bola Txapelketea.

Bagilak 29, astelehena

11:00etan, mezea eta barauskarria.
18:30ean, jaien amaierako txokolategaz eta errifen zozketea.

ARRATIA

Arratiako erromesak Urkiolako Errogatibara doaz hilaren 20an

Oinez joateko Diman 06:00retan eta Zeanurin 07:30ean dira hitzorduak, meza nagusia 11:00etan Urkiolako santutegian.

Asier Abrisketa

Kopla zaharrak dinoan moduan, "Urkiolara joan, zapatak urrutu... Aita San Antoniok barriak egingo ditu...". Eta zaharrak barri, Arratiako eleiza komunitadeak auten be egingo dau errogatibea Urkiolako santutegira, San Antonio osteko zapatuan, hilak 20. Holan, Arratiako parroketako jentea zein urtero hurbilduten diran asko, oinez, autobusez zein kotxeetan, Urkiolara joango dira 11:00etako meza nagusia entzun eta otoitz egitera. Izan be, errogatibea, premina baten aldeko otoitz kolektiboa da eta aurtengo leloa, "enbor beretik, hosto anitz" da.

Oinez joango diran erromesak, Dimatik goizeko 06:00retan eta Zeanuritik 07:30ean urtego dira, 11:00etan Urkiolan egoteko. Egingo daben bidea, Dima zein Zeanuritik, lehenengo Makaztui auzora ailegau, berta-



tik Zumeltzara joan eta handik Urkiolara geldituten diran bost kilometro eta erdiak egitea izango da. Behin Urkiolan, autobus zein kotxeetan joan diranakaz batu eta meza aurretik, prozesinotxoa egingo da. Mezearen ostean barriz, barauskarria eta

Eingokoen erromeriatxoa egingo dira Urkiolan bertan.

Autobusen ordutegiak: Bedia 09:00etan, Lemoa 09:10ean, Dima 09:25ean, Igorre 09:30ean, Arantzazu 09:35ean, Artea 09:40an, Areatza 09:45ean eta Zeanuri 09:55ean.

ZEANURI

300 lagun batu ziran Zeanurin, Caritasen Bizkaiko Karitate Egunean



Asier Abrisketa

Bagilaren 6an, Zeanurin ospatu eban Caritas-ek Bizkaiko Karitate Eguna. Bertaratutakoek BEGITU kontau dabenez, 300 lagun inguru batu ziran "egun polit eta gogoangarria pasetako". Jardunaldiagaz, Caritasen komunitadea batu eta indarrean ipin gura da eta egindako jardueren artean, Caritasen proiektu desbardinak ezetuteko stand- en ibilbidea egin zan. Besteak beste, EBI zentroi eskaintako guneak, etxe bako personeren arloko kanpainak, Arratiako

Caritasen Pobreen Munduko Egunaren ibilbide historikoa eta Caritas Bizkaiaren 70. urteurrena gogoratutako espazioa.

Hau eguerdi partean egin zan, herri kirol erakustaldi eta txistorra-janagaz batera. Baina aurretik, 10:00etan mezea entzun eban eta jarraian Jon Urutxurtuk parrokiako errataula ikusgarriaren azalpena emon eutsen bertaratutakoiei. Gainera, Gontzal Mendibil kantetan entzuteko aukerea be izan eban. Egunari akaberea emoteko, 300 lagunek frontoian egin eban bazkaria.

IGORRE


Insitutuko barrakoietan sartu eta apurketak eragin ditue ezezagunek

Igorreko jaietako lehen eguneko gauean gertatu zan eraso; leihoak, persianak, mahaiak, aulkiak, armairuak, ikasleen materiala eta pantailak dagoz kaltetuta.

Asier Abrisketa

Arratia BHIk, Tranbia Txiki Guraso Elkarteak, Igorreko Udalak eta Igorreko Jai Batzordeak sinatutako ohar baten salatu zanez, Igorreko jaiak ospatuten ziran bitartean, gauez, insitutuko patioan dagozan barrakoiak erasotuta izan ziran. Barrakoiak gela eta aldagela moduan erabilten dira eta ezezagunak barruan sartu ziran. Hainbat gauza apurtu eta irauli ebezan: leihoak, persianak, mahaiak, aulkiak, armairuak, pantaila bat eta ikasleen eskola-materiala.

"Eskolea ez da eraikin huts bat; ez dira hormak, leihoak edo altzariak bakarrik; ikastetxea ikasteko, alkarbiziteko, harremanak eregiteko eta etorkizunerako prestatzeko



espazioa da; guztiona da eta bereziki ikasleena, gure gazteena", inoen komunikaduan. Eta materiala ordezkaturako institutuaren aurrekontuak

erabili beharko diranez, azaldu eban, "erasoaren ondorioak, zoritxarrez, ikasleengan izango dabe eragina, zuzenean edo zeharka, eurak diran kaltetuak".

AREATZA/LEMOA

Badagoz zabalik Areatza eta Lemoako ugerlekuak



Asier Abrisketa

Gero eta handiagoak diran udako beroaldiakaz, kanpoko ugerlekuek aukera ona eskaintzen dabe udaro. Gurean, Areatza eta Lemoan baino ez dago horretarako aukerarik eta daborduko, zabalik dagoz ugerleku biak. Areatzakoak bagilaren 13an zabaldu ziran eta egunero

egongo dira zabalik urri lehenengoaren 13ra arte, 11:00etatik 20:00etara. Lemoan lehenago, bagilaren 8an zabaldu ziran eta egunero egongo dira zabalik 11:00etatik 19:30era, urri lehenengoaren 6ra arte. Horrezaz gainera, Arraibiko plazako ur-ziriztadak be badagoz erabilgai urri lehenengora arte, 09:00etatik 21:00etara.

ARANTZAZU

Hilaren 26tik 29ra ospatuko dira Arantzazuko sanpedroak

Kontzertu gauean, barikuan, Ostikoka eta Estutu taldeek joko dabe, jaiagaz segiduteko DJ Gose ta Sueren aurretik.



Asier Abrisketa

Diman lez, Arantzazun be ospatuten dira San Pedro jaiak; aurten bagilaren 26tik, barikua, bagilaren 29ra arte, astelehena eta San Pedro eguna. Orduan egingo da meza nagusia baina aurretik, astegoien osoan egongo dira arantzazuarrik jai giroan murgilduta. Aurreko urtean lez, beroari aurre egiteko ur-zezena urtengo da barikuan zein domekan. Gainera, BerMUTSik ekimena aterako da aurrera barrikuntza moduan, bermuta eta zuzeneko musikea

buztartuko dauazana.

Bagilak 26, barikua

19:00etan, pregoia eta txupinazoa. Gero, buruhandiak eta ur-zezena. 19:30ean, Larrain jantzea Gaztediko gaiteroakaz. 20:00etan, DJ Jonkass. 22:30ean, kontzertuak: Ostikoka, Estutu, DJ Gose ta Sue. 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa

Bagilak 27, zapatua

10:00etan, Paella eta Tortilla Lehiaketarako izen-emotea eta mahaien banaketea.

11:00etan, umeentzako jolasak. 12:00etan, Ardoa Barrura fanfarrea. 13:00etan, Txubelazo Txapelketea. 14:00etan, Paella eta Tortilla Lehiaketako aurkezpenak. 17:00etan, Txapel Jaurtiketa Txapelketea. 18:00etan, Kittu taldea. 20:00etan, playback-ak.

Bagilak 28, domekea

10:30etik 13:30era, jolas eta puzgarriak. 13:30ean, ur-zezena. 13:30ean, BerMUTSik (bermuta eta Maibi y los Rinocerontes Blancos-en kontzertua). 18:00etan, Arantzarteren jantzaldia. 19:00etan, Global Sumud Flotillararako bingo solidarioa. 20:00etan, txokolatea.

Bagilak 29, astelehena

San Pedro eguna 12:30ean, mezea. 14:30ean, herri barauskarria (izen-emotea hilaren 25era arte udaletxean). 16:00etan, erromeria Gauargi taldeagaz. 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua. 19:30ean, pintxopotea Herrikoan.

BEDIA

Aitor Sorriketa bere zazpigarren agintaldirako burrukatuko da

2003tik Bediako alkate dana barriro aurkeztuko da datorren urteko Udal Hauteskundeetara.

Asier Abrisketa

Aitor Sorriketa Larrea (1972, Bedia) aukeratu dau Bediako EAJ-PNVren Uri Batzarrak aho batez 2027an egingo diran Udal Hauteskundeetarako. EAJk zabalduetako oharrean Sorriketak dinoanez, "urte honeetan pilatutako esperientziak eta herritarrak entzunaz egindako lanak indarra emoten deuskue aurrean daukaguzan erronkei ilusinoz heltzeako". Izan be, Sorriketa 2003tik da alkate, sei agintaldi daborduko.

Zazpigarren agintaldirako ezarritako helburuen artean,

lankidetzeta eta etenbako entzute aktiboa adierazoten dauz EAJk oharrean. Eta alkategaiak gaineratu dauanez, lehentasuna herritarren ondoan egoten jarraitzea izango da: "Kezkak

ezetutea eta alkarregaz lan egitea sortzean diran erronkei erantzuteko; Bediak oinarri sendoa dauka eta danon artean horren gainean eregiten segiduko dogu".



UBIDE

Beste urte batez, arbolea altxauta ekingo deutsee jaiei ubideztarrek

Lehen egunean arbolearen bila joango dira basora, hau plazan altxetako. Gainera, honen neurria asmatuteko lehiaketea egingo da lehenengoz.



Asier Abrisketa

Bagilaren 19an hasiko dira Ubideko sanjuanak, urtero lez arbolea plazan altxeteagaz batera. Hilaren 24ra arte luzatuko dira jaiak eta kaleko musikea zein kontzertuak, pelota eta frontenis partiduak, umeentzako puzgarriak, antzerki eta jantzak, kuadrillen olinpiadak eta zelan ez, San Juan sua egongo dira jaietan.

Barritasunen artean, arboleak zenbat neurtuten dauan ikusteko euro bateko apustua egongo da lehenengo egunean, arbolea altxau aurretik, eta iragarri edo gehien hurbilduten danak eroango dau dirua. Gainera, Mamen Lopezek ubideztarren erretratu margolanen erakusketako bigarren zatia aurkeztuko dau, 2024koaren jarraipena. Beste alde batetik, Ubideko I. Frontenis Txapelketako finala be egongo da jokoan.

Bagilak 19, barikua

17:00etan, arbolearen bila. 19:00etan, Baietz asmatu arboleak zenbat neurtzean dauan! lehiaketea. 19:15ean, arbolea altxau eta zapi ipini. 19:30ean, Burrumba elektrotxaranga. 20:30ean, Ubideko I. Frontenis Txapelketako finala. 21:30ean, afari trukea. 22:00etan, Harresian Zulo taldearen kontzertua. Gero, txosnajaia.

Bagilak 20, zapatua

11:00etan, puzgarriak. Bitartean, Mamen Lopezen ubideztarren erretratu margoztuen Ubideko bizilagunak erakusketea. 15:00etan, herri bazkaria mozorrotuta. Gaia: abeslariak, musika taldeak. Gero, bingoa, mus eta briska. 21:00etan, Playback Txapelketea. 22:30ean, Eingoren erromeria. Gero, txosnajaia eta jokoak.

Bagilak 21, domekea

11:00etan, erraldioen jantza tailerra. 12:00etan, paintball. 17:30ean, pelota partiduak. Andren San Fermin Torneoa: Iturriaga-O.R. Larramendi vs. Aranburu-R.L. Mujika eta Zeanuriko Joko Alaikoen lagunartekoa: Etxeita-Mendia vs. Urigoitia-Emaldi. 20:00etan, parrilladea. 20:30ean, kontzertua: Sabdariffa.

Bagilak 23, martitzena

18:30ean, Ubideko Olinpiadak. 23:00etan, San Juan sua. 23:30ean, Harrobi Dantza Bertikala taldearen Geure(r)a ikuskizuna.

Bagilak 24, eguaztena

13:45ean, barauskarria trikitilari eta pandero-joleagaz. 18:00etan, Markeliñe antzerki taldearen Chef Nature. 20:00etan, herriko buruarin eta erraldioen plazajirea. Gero, atzen trakea eta zapi kendu.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Udari ondoetorria emoteko **suek** argiztauko dabez gaurik laburrenak

Bagilaren 21ean udako solstizioa ospatuko da eta 23an, San Juan bezperako jaia.

Asier Abrisketa

"Zapoak eta sugeak erre, artoak eta gariak gorde" suaren inguruan kantetako gaua izango da bagilaren 23koa Arratia, Ubide eta Zeberion. Denpora "paganoetan" udako solstizioa ospatuteko gaua zan eta kristautasunaren etorre-agaz, San Joan Bautistaren jaiotzea zan ospakizunerako arrazoia. Halanda be, beste tradizino askogaz pasau dan moduan, paganismoa eta kristautasuna nahastuta mantendutun da gaur tradizino hau Euskal Herrian. Holan, herri-

tarrakaz batera kantau, jan eta suaren inguruan jantza egiteko gaua izango da bagilaren 23koa inguruko herrietan.

Halanda be, Lemoan udako solstizioa ospatuteko tradizino berreskuratu da, hilaren 21ean ospatuko da jaia Kamane parkean. Gainera, bai Lemoan bai Artean, San Juan sasoiko zein udako solstizioaren inguruko mito eta ohiturak gogoratuteko berbaldiak egingo dira. Batu ez diran egitarauen artean Zeberiokoa dago, bertan alkarteek ospatuten dabez-ta suak. Diman barriz, egitaraua ez da za-

rratu edizino hau zarratu danerako.

Arantzazu

Bagilak 23, martitzena

18:00etan, sua prestatu.
20:00etan, sardina-jana.
22:00etan, sua izetu.

Areatza

Bagilak 23, martitzena

19:00etan, Bitsa konpainiaren *Harik tiraka* kaleko antzezlanaz plazan.
20:00etan, sardina-jana Zubizarran.
Gero, San Juan sua.

Artea

Bagilak 17, eguaztena

18:00etan, *San Juan garaiko*

mitoak eta ohiturak berbaldia, Juan Manuel Etxebarriaren eskutik.

Bagilak 23, martitzena

20:00etan, sardina-jana eta sua. Santamañen.

Bedia

Bagilak 23, martitzena

21:30ean, Gauargi erromeria.
22:30ean, playback-ak.
23:00etan, Gauargi erromeria.
00:00etan, sua.

Igorre

Bagilak 23, martitzena

18:00etan, umeentzako jolasak Zaztaparrakaz eta arku tiro ikuskizuna.
19:00etan, sardina-jana eta Ardoa Barrura fanfarrea.
22:00etan, San Juan sua.
Gero, suziariak.

Lemoa

Bagilak 18, eguena

18:30ean, udako solstizioa jaien inguruko berbaldia Asier Iturratzen eskutik. Kotxepin Kultur Etxean.

Bagilak 21, domekea

Udako solstizioa jaia.
19:00etan, asun pultsera tailerra.
19:30ean umeentzako jolasak.
Iluntzean musika, sua eta jantzak.

Ubide

Bagilak 23, martitzena

23:00etan, sua.
23:30ean, Harrobi Dantza Bertikala taldearen *Geure(r)a* ikuskizuna.

Zeanuri

Bagilak 23, martitzena

21:00etan, afaria; 22:00etan, sua. Plazan.
20:30ean, sardina-jana eta txokolatea. Gero, San Juan sua. Altzuan.

ARRATIAKO HEZKUNTZA MAHAIA: etorkizuneko talentua gaurtik eregiten

ERRATA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

Errota Fundazioa

Zelan lortu gure gazteek Arratian dagozan aukera profesionalak ezetutea? Zelan hurre-ratu hezkuntza eta gure bailarako errealidade sozial eta ekonomiko? Zelan eregi lurraldeari lotutako etorkizuneko talentua?

Galdera horreei erantzuteko sortu da Arratiako Hezkuntza Mahaia.

Hezkuntza Mahaia Arratiako hezkuntza arautuko zortzi zentroen arteko alkarlan eta koordinazio espazioa da. Bere helburua argia da: gazteen prestakuntza lurraldearen garapen sozioekonomikoagaz buztartzea, Arratian dogun talentua prestatu, garatu eta bailaran errotzeko aukerak sortuaz.

Egitasmoa 2025 urtean hasi zan eregiten. Orduan, Errota Fundazioak hezkuntza zentroetara hurbildu eta ekimenaren beharra, zentzua eta lehen proposamena partekatu zituan. Entzute eta lanketa prozesu horren ostean, 2026an taldeko hiru lan saio egin dira Mahaiaren helburuak, funtzionamentua eta datozan ikasturteetarako lan ildo estrategikoak alkarregaz zehazteko.

Prozesu horren emaitza garrantzitsua argia da: Arratiako hezkuntza arautuko zortzi zentroek bat egin dabe Hezkuntza Mahaiaren egitasmoagaz, alkarlanean aritzeko eta epe luzeko proiektu partekatu bat eregiteko konpromisoa hartuz.

Hezkuntza Mahaiaren egiteko nagusiak, hezkuntza zentroen arteko sinergiak sustatzea, hezkuntza komunitatearen eta enpresa sarearen arteko zubiak eregitea, gazteen orientazio akademiko eta profesionala indartzea, STEAM gaitasunak eta ekintzaitzeta sustatzea eta ikasleak Arratiako errealidade sozial eta ekonomikora hurreratzea dira.

Ildo horretan, lehen ekimenak be martxan ipini dira: Arratiako 3. Enplegu azokan Arratia Institutuko eta Zulaibarreko ikasleen parte hartzea, institutuko batxilergoko ikasleakaz kurrikuluma lantzeako tailerrak, Lur2000ra Lemoako lehen hezkuntza ikasleek eta Batz enpresara Arratia Institutukoek egindako bitak, edo Zulaibarregaz alkarlanean antolatutako Ekintzaitzeta astea.

Ekintza guzti honeek helburu bera partekatzen dabe: ikasleei euren inguruko aukera akademiko eta profesionalak ezetuarazotea eta etorkizunerako beharrezkoak izango diran gaitasunak garatzeko esperientzia errealak eskaintzea.

Hurrengo pausua urri lehenengoaren hasieran emongo da. Orduan zehaztuko da 2026-2027 ikasturteko plangintzea, zentro bakoitzaren beharrei erantzungo deusien ekimenak eta, aldi berean, danon artean landuko diran erroka partekatuak.

Atzen baten, Hezkuntza Mahaiaren helburua ez da zentro guztiek gauza bera egitea; bakoitzaren nortasuna eta autonomia errespetatu, norabide berean lan egitea baino. Gazteak prestatzea, Arratia ezetuarazotea eta etorkizuneko talentua gure bailararen garapenagaz lotzea.

Hezkuntza Mahaia etorkizuneko Arratia eregi gura dau, hezkuntza, gazteak eta enpresa sarea alkarlanean jarriz.



Zelan dago Mandoiako aire sorgailuen megaproiektua?

Makatzak

Mandoiako (Ferosca Wind SL enpresek bultzatutakoa) megaproiektu eolikoaren kontrako alegazioetan aitatu genduanegaz Mandoiako megaproiektu eolikoak bost eremutan eregiten dau, sai zuriaren habitat diranak eta kritikotzak izentauak diranak: Igorre, Dima, Mugarra, Itxina eta Audio; 15-20 kilometroren barruan. Kontserbazino Bereziko Eremua izanik, Aramotzen, Igorren, Mandoiako errotingandik bost kilometro baino gitxiagora; urtero habia egiten dau miru zuriak, eta kumea hazten dau miru zuri bikoteak.

Miru zuria eta ugatza legez babes maila berean


Euskal Herriko hegazti nekrofagoen (sarraskijale) kudeaketa planak 12.4 artikuluan ezartzen dau ez dala zentral eolikorik eregiko hegaztion bizilekueatik 10 kilometroko erradioan, batez be sai zuria eta ugatza edo arrano gorria bizi daitekezan lurraldean. Biak dira komunitatearen onuradunak eta babestu beharrekoak.

Zentzu berean Bizkaiko Foru Aldundiak (BAO 119 zbk. 2015/06/15) esaten dau: aerosorgailu eta kableen kontra txokeak ekiditeko Bizkaian ez dala aire sorgailu edo errotarik eregiko sai zuriaren habitataren inguruetan, 10 kilometroko erradioan.

Mandoiako erroten megaproiektua 10 kilometro baino hurbilago dago miru zuriaren urteroko habitatik (5 kilometro inguru). Habia hori identifikatuta dago eta jarraipena egiten jako. Megaproiektu eolikoak beraz, zuzenean kaltetuko leue miru zuriaren ingurunea, kalte hori gainera ezingo leiteke inolako neurri zuzentzaileagaz zuzendu edo hobetu.

Eta antzera gertatzen da Aramotz zeharkatzen dauan Güeñes-Itsaso autopista elektrikoagaz. Askotan salatu dau Makatzak taldeak ilegala dala eraikuntza hori, datuak faltsututa onartu zala ingurumen baimena baina... Red Electrica Española erainkuntza lanakaz jarraitu dau. Epaitegietan salaketea jarrita dago nekrofagoen habitatari eragingo deusian kalteagaitik. Oindino ebazpenik ez dago.

Lagun batek dinoan lez: "Miru zuriak lortzean badau milaka herritarrok eskatu eta lortu ezinik gabizana, bejon deiola hegaztiari".



Kamerak geletan: hezkuntza-komunidadearen ahotsa entzun barik hartutako ebatzia

Arratiako irakasle taldea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak "ikasgela digitalak" sortzeako proiektua ipini dau martxan diru publikoa dan Europako Next Generation funtsen bidez. Hori dala-ta, ikastetxe publikoetan kamera sistemak instalatzen hasi dira.

Ofizialki, gailu honeen erabilera ikastetxeak egin gura edo behar dituan barne zein kanpo bideodeietarako dala arrazoitzen dau. Baita ustebako kontingentzietarako be: uszteko pandemia.

Eskoletan kezka handiz jaso da ebatzia, bai pribadutasunaren ikuspegitik, bai hezkuntza ereduaren ikuspegitik be.

"Ikasgela digital" honeek aurrez behar bes-teko informazioa jaso barik eta eztabaidarako eta adostasunerako biderik emon barik ezarri dira. Holan, hezkuntza komunidadeak ez dau izan honen guztiaren eragina eta ondorioak aztertzeke eta hausnartzeko momentu eta gunerik.

Gainera, Hezkuntza sailari gailu honeen erabilerearen desadostasun, eretxi edo zalantzak helarazo jakozanean, jasotako erantzuna zehatza eta eztabaidarako aukera bakoa izan da: "Hau goitik datorren ebatzia da eta hezkuntza komunidadeak ez dauka zeresanik".

Hainbat herrialde "desintoxikazio digita-leko" politikak ezartzen dabiz eskoletan pantailen erabilera mugatzeko edo ezabatzeko. Neurri horreen helburua kontzentrazioa hobetzea, irakurketan emon dan atzerapausuari aurre egitea eta adinbakoien osasun mentala babestea da. Adibidez Finlandia, erreferentziatzat izan dogun hezkuntza er-dua, digitalizazioaren aldeko apustu osotik kautelazko ikuspegi batera igaro da. Bertan, egungo hezkuntza-politikek lehentasuna emoten deusie ikasleen ondoizateari, eta oreka pedagogikoa bilatzen dabe, kontzentrazio arazoak detektau eta emaitza aka-

demikoak bajatu ostean. Kontraesankorra izanda be, gure herrialdean, Hezkuntza Saila gero eta gela digitalizauagoen aldeko apus-tua egiten dabil.

Bestalde, ezin dogu ahaztu, inplementa-zino honen eztabaidak dimensino juridiko eta etiko garrantzitsua barnebildu beharko leukeela. Izan be, geletan ekosistema berezi honen hedapenak, kamara omnidirekzional eta mikrofono ambiental honeek barne, pribadutasunerako eta intimidaderako eskubidea-gaz, norberaren irudirako eskubidea-gaz eta adinbakoien datuen babesagaz talka egiten dau aurrez aurre.

Askok egiten dogun galderea bardina da: benetan al da hau hezkuntza publikoaren lehentasuna? Ratio altuek, azpiegitura ga-beziek eta baliabide faltak bere horretan jarraitzen daben bitartean, milioika euro bi-deratuko dabez kamera sistemetara. Horrek susmoak eta mesfidantzea be sortu deus-kuz. Nonor aberastu al da diru publikoagaz erositako kamera honeek masiboki saldu eta instalatzearen ondorioz? Zertarako erabiliko dabez jasotako irudi eta datuak? Zein izango da behin kamerak jarrita, emongo dan hu-rrengo pausua?

Beraz, Hezkuntza sailari eskaera zehatza egin gura jako: kamerak ikastetxeetan derri-gorrez ipinteko agindua bertan behera geratu daitela eta eskoletan sufriduten gabizan gehiegizko digitalizazio honen gaineko haus-narketarako urrats esanguratsuak emotea.



LEMOA

Formatu guztietako erromerien topaleku izango da Lemoa urrietan

Asier Abrisketa

"Erromeriak arpegi asko daukaz", inoan Leixuri Arrizabalaga Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren saileko foru diputaduak Lemoan bagilaren 16an egin zan Bizkaiko Erromeria Eguneko aurkezpen instituzionalean. Izan be, guk, gure gurasoek edo aitita-amamek erromeriaren gainean daukagun idea sano desbardina da eta gaur egun be, estilo desbardinetako musikak jatorkuz burura. Holan, erromeriaren formatu eta kontzeptu guztiak batzeako egin zan igaz lehenengo Bizkaiko Erromeria Eguna Durangon eta aurtengoan, Lemoan ospatuko da urri bigarrenaren 17an.

Esther Iturrioz Lemoako alkateak be hartu eban berbea ekitaldian eta Lemoa aukeratu izan zala esateko Arrizabalagaren deia jasoterakoan, sentidutako "ilusino eta poza" azpimarratu eban. Iturriozek iragarri eban, hiru gun e izango ditu jaialdiak: Arlonagusiako aparkalekua, Karabie Gaztetxe-ko aparkalekua eta Kotxepin. Horrezaz gainera, egongo dira kalez kale ibiliko diran talde eta musikariak be, tartean Arratiako Musika Eskolako ikasleen taldeak. Izan be, Arratiako eta batez be Lemoako alkarteen presentzia garrantzitsuaren barri be emon eban Iturriozek: Mendieta Herri Kirol Taldea, Du-

rundi Barri eta Arantzarte jantza taldeak, Eingo, Merhezi...

Egitaraua eta taldeak

Jon Gomez Garai Bizkaiko Erromeria Eguneko antolatzaileetako batek aurkezpenaz azaldu eban egitaraua apurka-apurka iragarten joango dirala datozen asteetan, webgune zein sareetan. Halanda be, aurreratu eban parte hartuko daben taldeetako asko: Korrontzi, Lorratz, Ene Kantak, Eneritz eta Edurtzeta, Kittu, Harribitxi, Matraka elektrotxarangea, Lehian, Argitu, Zirkinik Bez, Triki-zio eta aitatutako arratiarrak. Horreezaz gainera, egunean zehar herri kirol erakustaldiak, erraldoi eta buruhandiak, gaitero eta albokariak eta ikastaroak be egongo dira, besteak beste. Itsaso Arrietak euskal kantu ikastaroa eskainiko dau eta Arantzarteko Jone Intxaustik, Arratiako jota ikastaroa.



EHU

**ETORKIZUNEAN
LANEAN**
Ibilbidea zure esku

www.ehu.eus/ikasi

"EHUn Fisika ikasi nuen.
Gaur NASA-rekin lan egiten dut"

Eneko Axpe,
Fisikaria

BEGITU



Ekainaren 28a
LGTBIQ+ Askapenerako Nazioarteko Eguna
Gora aniztasuna!

Ubide



Jai batzordeak eta
Ubideko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez

Gora San Juanak!




aek
euskara praktikoa

Udan ere euskaraz eroso

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ARRATIAKO AEK

- Ikastaro trinkoak uztailean eta irailean 100 ordu (5 ordu egunean)
- Maila guztiak
- Azterketak prestatzeko (B1, B2, C1)

Udalek eta HABEK diruz lagunduta
Matrikula epea, ekainaren 2tik 29ra

Elexalde 10, behea. IGORRE
94 631 56 57 · 607 632 916 · arratia@aek.eus



LGTBIQA+ HARROTASUN EGUNA

Bagilak 28

h **A** rro **B** esarkatu

S entitu ma **I** tatu

au **K** eratu go **Z** atu

err **E** spetatu **I** zan



IÑAKI GARCIA URIBE

“Hau da Gorbeiak nire bizitzeari egindako oparia”

Iñaki Garcia Gorbeiaiko ikerlariak zizelauta dagoan JEL handi eta altuena topau dau kasualidadez Egiriñaon eta honen gainean sakon berba egiteko tarte izan dogu BEGITUN, bere ustez 1937an gudariak egindakoa da inskripzioa.

Asier Abrisketa

473. BEGITUN informau genduan, Iñaki Garcia Uribe Gorbeiaiko ikerlariak eta mendizaletasunaren ikerlariak eta Aranzadi Zientzia Elkarte etnografoak dokumentata dagoan JEL handi eta altuena aurkitu dau Gorbeian. Egiriñaon dago harri baten zizelautako Sabino Aranaren “Jaungoikoa eta Legezaharra” leloaren akronimoa dan inskripzioa. Garciaren ustez, Egiriñaoko aterpean egotzan 1937ko gudariak, honeen intendenteek edo gudariak hornitutuen etozanek egin eben inskripzioa.

Momentu sano hunkigarria izan zan kasualidadezko aurkikuntzea: “Niretzako oso inportantea izan da, jeltzale, jeltzale eta mendizale moduan, harrotasun bereziz dinot”. Holan, sentimentu handiz eta sakon egin deusku berba BEGITUN, zizelautako JEL honen esangureaz, inskripzioaren egileez eta aurkikuntzearen garrantzia historikoaz.

Ustebakoan aurkitu zenuen JEL inskripzioa, zelan izan zan egoera?

Ba begira, mendizale talde bat egon ginan urtekerea egiten, euren artean Bizkaiko Mendi Federazinoko presidentea dan Pedro Aizarna eta Arabakoa, Araceli Bejarano “Lurra Aske”. Bi honeek eta beste zortzi bat ikerketa lan txiki bat egitera joan ginan, nire Gorbeiaiko azterketa generiko baterako. Kurioso izan zan ze bajatukeran, Gorbeiaiko kurutzia egin ostean, esan neutsien Edurretako Amaren ermitearen gaineko azalpen txiki bat egingo neutsiela.

Bizkaiko 464 ermitetatik altuena da, eta modu berean txikerrena. Ermita hori, 1922koa dana, Zeanuriko alkatea zanak eregi eban, gero frankismoak errepresaliautakoa bera. Aterpe-ostatuaren laguntza moduan eregi eban, Gorbeiaiko eta Bizkaiko lehenengo mendiko estatua zanarentzako. Oindino ez egoan mendira gaua pase-tan joateko kulturea baina ermitea ipini zan, holan artzainak eta mendizaleak joan ahal ziran domeketan eta gero, aterpean

arrautza prijidu batzuk jan eta kutxea egiteko.

Ez dot leku zehatza esango, ze bildurra emoten deust baten bat joan eta harria apurtutea, daukagun gizarte zoroagaz... Baina Zeberioko lagun bat eta biok ermitea baino arinago gelditu ginan besteei itxaroten eta motxilea lurrean ipini neban. Orduan, lurra ikusteko begiakaz begiratuten hasi nintzan. Oso garrantzitsua da hau. Javi Castro Aranzadiko kimikoak eta Euskadiko etnografo onenariak erakutsi eustan ingurua begiratu eta interpretetan: gurdien markak, baserriak, txabolak zein errotarriak egiteko erabili diran harri zatiak... Badira zortzi urte holan nabilela Gorbeiatik eta gauza asko deskubridu doguz holan. Bueno ba harria ikusi neban. Lehenengo J-ri erreparau neutsan eta gero E-ari. Eta L-a, higituen dagoana...

Zeberioko lagunari galdetu neutsan: “Hori ez da L bat izango ezta?”. Makurtu eta atzamarrakaz ikutu genduan eta bai. Galdetu neutson ia aurrean zer geunkean baekian, eta ezetz. Ba euskal abertzaletasunaren sorburua dan leloa da, Sabino Aranaren esaldi insignia.

Jaungoikoa eta Legezaharra, ezta?

Bai. XIX. mendean gagoz, Euskadiko politika aldaketa garaian. Politika zahar bat dago eta Sabino Aranek egiten dauana da nazino bat garala adierazo, eta nazinoek daukiena euki behar dogula: ereserkia, banderea eta lelo bat. Ikurriña bere anaia Luis Aranagaz diseinatu eban, jatorriz Bizkaiko banderea izango dana eta gero beste sei herrialdeei oparituko jakona. Ikurriña bizkaitarra da, hau argi geratutea gustetan jata, ze jentek uste dau danontzako sari bat dala eta ez, euskal herritarrentzako bizkaitarran zesino bat da, zazpiak bat egiteko.

Gero, esangura handiko lelo bat be behar zan eta egiten dana da hiru berba batu: Jaungoikoa eta Legezaharra. Hau da, JEL. Hain zuzen be, EAJ-PNVkoak garenok, nire moduan, jeltzale eta jeltzale deitzean deuskue. Jeltzalea



EAJ-PNVko kidea da eta jeltzalea, abertzalea. Bientzako erabilten da JEL-a.

“Legezaharra”, galdu-tako foruak aldarrikatuten dira.

Hori da bai. Guk 1500 ingurutik euki genduzan foruak eta Sabino esaten ebana zan, foruak izan badoguz gu bagarala eta izan behar garala, herri independente bat. Herrialde bat gara, ez Espainia ez Frantzia, Euskadi gara, eta hortik aldarrikatuten da “zazpiak bat”. Berrez, Euskal Herriko lehenengo mapea Bonaparteetako batek egin eban, baina identitatea eregitzen dauana Sabino da. Esan daigun etxe bat erosi dozula, baina hau bete egin behar da. Ikeara joan eta altzairuak erosi, hori egin eban Sabino. Euskaldunon etxea bete eban eta identitate propioa izateko behar genduna emon euskun.

Berba hori -JEL- batez be idazteko erabilten zan. Gutunak idazterakoan, euskeraz zein erderaz, agur moduan JEL ipinten zan. Nik oindino be egiten dot, nire moduko lagun sabinarrakaz, JEL moduan agurtuta; gure arbasoek egiten ebelako, Sabino Aranaren ohore eta gloriarako.

Badagoz zizelautako JEL batzuk, ez asko. Adibidez, Kanalak eleizan. Portalean agertuten da JEL oso eder bat. Ze Sabino Arana hilterakoan, han

lurperatuten dabe eta bertako abadea bere jarraitzailea zan. Gainera, portaleko harrizko arkuan, badago lerro bikotzeko esaldi bat be, euskera sabinarrean: *Jaunaren etxea da leku au - lagokan lotzaz berton egon zadi - Neu naz artzain ona - Alkar maite egikezube*. Baina oso gatxa da zizelautako JEL bat ikustea.

Oindino gatxagoa, holango neurrikoa ikustea. 30 zentimetrotik gorako altuerako letrak, perfektu zizelautakoak eta bakotxa, lau zentrimetroko lodikerakoa. Profesional batek egindakoa da, edo JEL asko egin dituan baten batena, ze oso perfektua da. Eta gainera hori, mila metrotik gora eginda. Beraz, suertez egiaztatu daigegu momentuz ezetuten dan altuen dagoan eta handiena dan historiako JELa dala. Danau kasualidadez, loteria irabazi dogu.

200.000 aldiz pasau naz hortik, eta hau irakurten dauan edozein Gorbeiazale eta arratiarrak be bai, milaka aldiz pasauko zan bertatik. Egiriñaotik kurutzetako bidean doan edonor pasau da hortik. Oin bildurra emoten deust “fatxa”-ren bat bertara joan eta txikituteak.

Ez dago zehatz jakiteko modurik, baina badaukazu hipotesiren bat ezta?

Bai, esango neuke inskripzioa gudariak egin ebela, Egiriñaoko

Politika zahar bat dago eta Sabino Aranek egiten dauana da nazino bat garala adierazo, eta nazinoek daukiena euki behar dogula, ereserkia, banderea eta lelo bat



Ekainak 28

**LGTBIQ+fobiarik bako
gizarte bat gura dogu**

**LGTBIQ+ Askapenerako
Nazinoarteko Eguna**




Ubideko Udala

Ekainak 28

Zutunik eta harro
LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna




Arantzazuko Udala


EKIN
eraiketak

- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57

@ ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

aterpean egozanak, Gorbeia batailea galdu eta iges egin aurretik. Denporaldi batez egon ziran, Lenago il batailoikoak eta baegozan Padura batailoikoak be. Arratiarrak egozan bertan, bai eta nire herrikoak, Ugaokoak eta Arrigorriaga, Arrankudiaga, Zollo... Euki dot euretako batzuk ezetuteko suertea. Euren artean lagun personalak, gerrako istorioak kontetan eustiezanak. Hil ziran oin dala urte batzuk, baina inork ez eustan kontau honen inguruko ezebez.

Ipini naz kontaktuan Gorbeia betidanik aztertuten ibili garan gitxiakaz, euren artean Jon Urutxurtu, Gorbeia zearnuztar doktore gorenena. Baina inork ez daki ezebez. Istorio honetan, zizelau ebenak hil egin ziran, egindakoa kontau barik. Kasualidadez deskubridu dogu. Eta gitxienez suerte hori daukagu, erakusgai izatea. Niretzako oso inportantea izan da, jeltzale, jeltzide eta mendizale moduan. Harrotasun bereziz dinot. Esan gura dot, EAJ-PNVkoa dan nonor, mendizaletasunaren ikerlaria, kurutzetik bajatu barri... kasualidade handia da.

Pentsetan neban: "Hau ezin da izan, haluzinetan nabil... oindino ez dot ezebez edan... be-roa...". Baina ez, momentu oso potentea izan zan, opari bat. Hau da Gorbeiak nire bizitzeari egindako oparia.

Zer egin zenduan gero?

Ba lagun on bategaz alkarbanatu neban lehenengo, Iñaki Anasagastigaz. Bere aita lehenengo Euzko Gaztediko presidentea izan zan, geroago urtengo ziran EGI, ETA eta beste antolakundeen enbrioia. Iñakiren aita gudaria zan eta han egon zan momentu haretan, oindino Egiriñaoko aterpean posizionauta egon ziran momentuan. Iñaki hunkitu egin zan, nire moduan, baina ez ekian ezebez, aitak ez eutsan

ezer kontau.

Ezetuten zenduzan gudariak zer kontetan eben? Egiten zan han ekitaldi politikorik inskripzioaren zergaitia azalduteko edo...

Egia esan gudariak ez eben askorik kontetan, datu anekdotikoren bat bakarrik... Nire eretxia da, duda barik, bertan egon ziran gudarietako batek edo batzuk, edo jaso eben bisitetako batek egin ebala. Berbarako, Eusko Jaurlaritzako intendentek edo holako zoezer egiteko jente prestatua, beste hainbat JELen bat egin ebanak.

Orduan, imaginetan dot egunak han luzeak zirala, ezer egin barik. Eta baten batek Aldamin begiratuteko jesarten zan lekuan topau ebala arbela. Danak ikusi eben edo inork gehiago ez, baina gauzea da guganaino heldu dala eta leku turistiko bilakaturten dauala.

Ofizioz hargina zan gudariaren bat akaso?

Oso gatxa da jakitea, baina hargin asko egon behar ziran Bizkaian 20.000 baserri eregiteko. Zergaitik ez? Baina nik uste dot Bilbotik etorritako nonor izan zala, Egiriñaora igon zala posizinoa ikustera, intendentziadun nonor. Orozkoko Gallartu auzotik medizina, janari eta bestelango hornidurak igoten ziran, batzutan gauzez, idi eta gurdi karabanetan. Baina bat-batean bonbardaketea egon zan Itxinan eta honek aldatu egin eban egoerea. Halanda be, horreetako bat be izan eitekean. Gurdiakaz joiazan Aldapeko pasura arte, Arraba eta gero, eta hortik gurdiak pasau ezin ziranez, gudariak bajatu eta dana eroan behar eben lepoan aterpera arte. Aukerak asko dira baina honen alde egiten dot nik.

Badaukazu beste hipotesiaren bat? Ez dakit aurretik be ermitan erromeriak edo egin ziran...

Gertatuten dana da, artzain ba-



tek adibidez, ez daukela holan-
go lan bat egiteko gaitasunik.
Ezin dau hori zizelau, zizelaut
dagoan moduan gitxienez ez.
**Azpimarratu gura dozuna da,
oso ondo eginda dagoala.**

Ez da oso ondo eginda dagoa-
la, baizik eta guztiz perfektua
dala. Lau zentimetro dira hiru
letretan, bardin-bardinak dira.
Imaginetan dot hara ez zala
metro bategaz igongo, punzoia

be bertatik zeozer hartuta edo...
Mailuren bat bai eukiko eben
gudariak aterpean.

**Ez dago hau datetako modu-
rik ezta?**

Egurra izango bazan bai, den-
drokronologiagaz adina jakingo
gendualako. Baina harrian ezin
da. Halanda be, maisulan bat da.
Hau ez dau artzain, baserritar
edo behiak goian eukazan ba-
tek egindakoa. Ezin dabe. Hau,

gaur egun, arte irakasle bat edo
izango litzateke. Persona nor-
mal bat okertu egingo zan, ez
ebazan lau zentimetro zehatzak
errespetauko eta J-ren beheko
bueltea ez eban hain perfektu
egingo. Eta ziur ez zala JELA
egiten eban lehenengo aldia.

**Existiduten da Gorbeian
beste sinbolo politikoren
antzeko markarik?**

Badagoz inskripzioak, Zigoitia

parteko kobazulo batzutan, han
ostenduta egon ziranek harrian
grabauta itxi ebezan euren ize-
nak, batailoien izenak eta beste.
Baina Bizkaia aldean ez dago
dokumentautakorik. Arabakoak
baina, uste dot ez dirala aber-
tzaleenak. Ez dira gudarienak,
miliziano komunistenak dirala
esango neuke. Horregaitik be,
JEL hau bakarra da. Bizkaiko
aldean, altuena eta bere tamai-
nuagaitik be bakarra.

**Eta gainera, Gorbeiaentzat
berezia dan urte baten ager-
tu da ezta?**

Bai, hau Gorbeiaiko kurutzaren
125. urteurrenean deskubridu
da. Barriro dinot, opari bat izan
da. Kuriosoa da be, aurten Gor-
beiaiko kurutzaren oinarrian
obrak egingo dirala. Baina hau
ez da urteurrenagaitik izango,
diputazinoek ez ekien aurten-
goa 125. urteurrena dala be ez.
Barregarria da, zelango politika-
ri eta funtzionarioak daukagu-
zan. Halanda be, uste dot obra
beharrezkoa eta ederra izango
dala. Hotz, hezetasun eta zaldi
zein gizakien pasoari urte lu-
zez eutsi deutsu kurutzeak eta
esku-hartzea beharrezkoa zan.

**JEL hau
bakarra da.
Bizkaiko al-
dean, altuena
eta bere ta-
mainuagaitik
be bakarra**

Ekainak 28
Aske maitatzeak gizarte osoa egiten dau libreago
LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna

Arantzazu

**Arantzazuko
Udalak eta
Jai Batzordeak**

**Jai askeak eta
zoriontsuak opa deutsuez**

**DIMAKO UDALAK
Jai ZORIONTSU EUSKALDUNAK
opa dautsuez**

Dimako Udala

HI TA NI BI
Dima

FUTBOLA

Hurrengoan bai!

Andrazkoen Arratia B taldeak ezin izan dau Euskal Ligara igon promozinoko bigarren partidua etxean galdu ostean.



Erredakzioa

Dulantzin jokatu eban lehenengo partidua bagilaren 7an eta 1-6 irabazi eban, emaitza horregaz Arratiari, Intxaurdiren kontrako partiduan bardinketeak balio eutsan. Arratia Bk hilaren 13ko arrastian jokatu eban, bero itzelagaz, Donostiako Intxaurrondo auzoko Intxaurdi taldearen kontra eta 0-2 galdu eban.

Kanpotarren golak lehen zatiko 43. minutuan eta deskontuko 98.enean heldu ziran. Partidu sano burukatua izan zan eta kanpotarrek bigarren zatian, denpora galerakaz, ez eben itxi jokaturen. Urduri eta euren jokoa egin ezinda jokatu eben Arratiako jokalariek.

BEGITU Iratxe Bernaola kapitainagaz egon zan eta hauxe adierazo eban: "Partidu gogorra

izan da, Intxaurdikoak gogotsu etorri dira eta hasikeratik argi itxi dabe partiduaren bila datozela. Guk lasai jokatu gura izan dogu bardinketeak be balio euskulako baina atsedenaldira 0-1 heldu gara. Intxaurdikoak aurreratu dira eta nahiz eta bueltea emoteko gogoakaz urten garan bigarren zatian gure aldeko gola ez da heldu. Atzenengo minutuetan pare bat aukera euki doguz bardinketea lortzeako baina baloia ez da sartu. Pare bat minutu falta izan diranean Intxaurdikoak bigarren gola sartu deuskue partidua zarratuteko".

Jente asko batu zan Urbietan, 350 lagun inguru, eta Donostiatik be autobus bete heldu zan. Arratia Ako jokalarri asko be izan ziran ikusleen artean eta etxeko jokalariek babes handia izan eben.

Andrazkoen taldeen urte historikoa

Aurtengoa denporaldia historikoa izan da andrazkoen futbolarentzat, Arratia Ak 2. RFEF maialara igotea lortu dau eta Arratia B Euskal Ligara igoteko atteetan gelditu dalako.

HERRI KIROLAK

Aitzol Atutxak laugarren egin dau Euskal Duatloiko finalean

Asier Abrisketa

Bagilaren 7an jokatu zan Euskal Duatloiarene finala Tolosako zezen-plazan eta hamaika probalarien artean egon zan Aitzol Atutxa dimoztarra. Txapela Julen Alberdi "Txikia" azkoitiarrak irabazi eban nagusitasunez, probak 22 minutu eta 44 segundotan amaituta eta igazko marka hobetuta. Bigarren postuan Ibai Soroa (26:20) eta hirugarrenean Xabier Zaldua (27:08) egon ziran. Honeen atzetik geratu zan Atutxa, 29 minutu eta 7 segundoko denporeagaz.

Dimakoak eskura izan eban hirugarren postua, izan be, indartsu hasi zan baina lana luzatuz joan zanean, Zaldua aurrea hartzean hasi jakon Atutxari. Gero, lehen txandan Eneko Saralegik egindako den-



porea hobetu behar izan eban dimoztarrak eta galapan estututa, atzenean lau segundoko aldeagaz izan zan laugarren. Atutxak BEGITU azaldu dau, bere helburua podiumean sartzea zala eta entranametu onak egiten ibili bazan be, "urdurita-

suna eta presinoa zala-ta, sentzazino txarrak" izan ebazala.

Saralegik 29:11ko denporea egin eban eta atzetik geratu ziran Eloy Kortxero (30:14), Oier Mitxelena (30:20), Julen Kañameres (30:27), Oier Kañameres (31:17), Ioritz Gisasola (32:23) eta Julen Larrea (33:26).

Trontza mistoan bigarren

Hilaren 14an Trontza Misto Txapelketan hartu eban parte Atutxak Galdakaon, Leire Oleagaz batera eta bigarren egin eben 06:12ko denporeagaz. Txapeldunak Ainize Perez eta Julen Iturraspe izan ziran, lanak Atutxa-Oleak baino 15 segundo arinago amaituta. Oiane Gonzalez eta Bingen Erleaga, Olga Artiñano eta Txutxi Larrazabal, eta Eztizen Duque eta Ibai Criado izan ziran hurrengoak, hurrengo hurrengo.

BEGITU

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

• 649 979 115 •

inigoirua@begitu.eus

EKAINA

ANIZTASUNA

eguneroko konkista

artea udala

TXIRRINDULARITZEA

Eskolarteko BTT txapelduna izan da Peio Erdoiza lemoaztarra

Euskal selekzioa ordezkatuten, Espainiako Txapelketea jokatu du garagarrilean Melillan.

Asier Abrisketa

Maiatzaren 30ean jokatu zuen Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen BTT txirrindularitzako proba eta bertan, Lemoako Txirrindulari Elkarteko Peio Erdoiza Jugok eta Beñat Bober Irurtiak hartu eben parte infantil mailan. 64 txirrindulariren artean, Erdoiza izan zuen arinena eta proba irabazi eban, zirkuituari lau birak 0:33:56ko denporan eginda. Bober barriz, hamazazpigarrena ailegau zuen helmugara.

Peio Erdoiza Bizkaiko txirrindulari selekzioagaz egon da jokatu eta EAEko mendi-bizikletako txapelduna izatea lortu du. Beraz, Espainiako BTT Txapelketan parte hartzeako txartela dauka. Euskal selekzioagaz Melillara joango da Erdoiza, garagarrilaren 3an jokatu dan lasterketea lehiatuta.



ESKUBALOIA

Denporaldi bikaina eginda bueltatu da Lemoara Rosane Serrano

Eskubaloi jokalaria Erreginaren Kopako txapeldunorde eta European Cup-eko txapelduna izan da.

Asier Abrisketa

Lemoako Rosane Serrano, Etxebarriko Kukullaga taldean hazi ostean fitxau eban Atle-

tico Guardes talde galiziarrek 2025-2026 denporaldirako, 17 urteagaz. Serranok BEGITU azaldu dauanez, lehenengo mailan jokatu bada berez "bete-



tako ametsa". Baina hori baino gehiago izan da, Erreginaren Kopako azpitxapeldun eta European Cupa irabazi dabe-ta: "Lehen urtean holango tituluak irabaztea ikaragarria da, baina taldekideak, teknikoak eta zaleak izan dira urte osoan alboan egon diranak eta urtea politagoa eta errazagoa egin dabenak".

Atletico Guardes Liga Guerreras Iberdrolako talderik garrantzitsuenetarikoa da eta Serranok Erreginaren Kopan parte hartu eta finaleraino helitzeako aukerea izan dau. Atzenez baina, Super Amara Bera Bera talde euskalduna nagusitu zuen 26-21.

Halanda be, jarraian jokatu eben partidu bikotxera European Cup-eko finala eta oingoan bai, Serranoren taldea nagusitu zuen MSK Luventia Michalovce talde eslovakiarraren kontra. Lehenengo partidu Eslovakian jokatu eben eta 20-24 nagusitu zuen talde galiziarra. Buelako partidu barriz, 29-24 irabazi eban Guardesek, lehenengoz Europako kopea altxauaz.

Datorren urtean be, lemoaztarrek Guardes taldean segiduko dau: "European jokatu dogu barrero eta talde lehiakorra izateko asmoa daukagu".

MOTORRAK

Andra motorzaleen topagunea izango da Lemoa

Bagilaren 20an egingo da topaketa irekia eta izena egunean bertan emon ahal izango da.

Asier Abrisketa


Motorzaleak gero eta leku gehiago hartzen dabiz Arratian eta helduek hurrengoak, + Curvas taldeko andra motorzaleak izango dira. Antolatu daben lehenengo kontzentrazioa izango da eta Lemoan egingo da jai handia. Taldetik azaldu dabenez, andra zein gizonentzako eguna izango da, baina andrak izango dira protagonista nagusiak: "Asmoa da motorraren munduan bordinatasuna badagoala eta andra asko gara-la erakustea".

Holan, motor modalidade desbardinatuko neskato eta andra konbidauak egongo dira topaketa, euren auto, moto eta kart-akaz: Noa Goiricelaya, Aitana Peña, Izaro Garcia, Uxua Orcoyen, Eguzkiñe Enriquez, lanire

Ezeiza eta Laura Cabezas berbarako. Ruben Sevilla be egongo da topaketa, motor gainean akrobaziak egiten.

Izen-emotea eta egitaraua

Izena, 20 euroko prezioagaz, egunean bertan emon ahal izango da 09:00etatik aurrera eta bertan sartzen dira bazkaria, edari bat, oparia eta zozketarako errifea. Halanda be, plazak mugatuak dira eta beraz, antolakuntzatik izen-emotea alde aurretik egitea gomendau dabe, 642 804 811 telefonoan. Motor ibilbidea 10:00etan hasiko da, 12:00etan ume pilotuen erakustaldia, bazkaria 14:30ean, 16:00etan motorzaleen jolasak; 18:00etan, akrobazia ikuskizuna eta ekitaldia 19:30ean amaituko da, errifen zozketeagaz.



PELOTEA

San Fermin torneoko bigarren partidu irabazi dau Amaia Aldaik

Asier Abrisketa

Amaia Aldai eta Arrate Bergara San Fermin Torneoko lehiari sartuta dagoz. Lehenengo partidu, maiatzaren 9an, 22-16 galdu eben Olatz Arrizabalaga eta Nahia Bertizen kontra. Baina bigarren partidu bai, bagilaren 7an jokatu zana, irabaztea lortu eben. Madalen Etxegarai eta Irati Zabalarren kontra 22-10 irabazi eben; Aldaik BEGITU kontau dauanez, "nahiko erraz

eta sentsazio oso onakaz".

Oin arte lortutako emaitzakaz, datorren partidu sano garrantzitsua izango da finalerako ligaxkara sailkatu ahal izateko. Bagilaren 21ean izango da partidu, aurreko urteko txapela defendiduten dabiz Gaiuri Zabaleta eta Itxaso Erasunen kontra, gainera, Erasunen etxean, Zizurkilen. Finalerakoak Donezteben jokatu dira eta finala, sanferminetan lruñean.

● MUSIKEA

Eingok zabalik dauka 2026-2027 ikasturterako matrikulazio epea

Erredakzioa

Eingok zabalik dauka datorren ikasturterako matrikulazio epea. 7 urtetik gorako umeentzako hainbat ikasgai eskainiko ditue, euskal musikea eta kultura tradizionalaren transmisioa ardatz hartuta.

Beste urte batez, trikitixa, panderoa, perkusioa, plazako jantzak eta kantua ikasteko aukerea izango dabe ikasleek. Horrezaz gainera, helduentzako musika eta terapia saioak be eskainiko ditue.

Eingok denporea daroa euskal kulturearen zabalkundean lanean, eta belaunaldi barriek musikea, jantzea eta kantagintzearen bi-

dez herri kulturara hurreratzeko aukerea eskaintzen dau. Taldeko arduradunen esanetan, jarduerik ikaskuntza artistikoa eta talde giroa buztartzen ditue, eta parte-hartzaileek tradizioa ezetuteaz gain, bizipen eta hartu-emon aberasgarriak be eskuratzen ditue.

Datorren ikasturtean parte hartu gura dabenek informazio gehiago jaso edo izena emon ahal izango dabe Eingo taldeagaz zuzenean hartu-emonetan ipinita. Taldearen egoitza Igorren dago, Garbe kalean, eta informazioa eskuratzeko 679 417 353 telefono zenbakira deitu daiteke. Izena emoteko epea zabalik dago hilea amaitu arte.



● JANTZEA

Arantzartek zabalik dauka datorren kursorako izen-emotea

Aurten zazpi urte edo gehiago beteten dabezan ikasleak hartuko dira ikastaroetan.

Asier Abrisketa

Arantzarte Dantza Talde igozterak zabaldu dau ume eta gazteentzako 2026-2027 kursoko ikastaroetan parte hartzeako izen-emotea. 2026an zazpi urte beteten dabezanak eta nagusiagoak hartuko dira, daborduko

euskal jantzetan esperientzia daukienak zein hasteko gogoak dagoan edonor. Izen-emotea egiteko, galdetegia zabaldu dau jantza taldeak, labur.eus/arantzarte estekan. Bertan ipini daitezke ikasle izango danaren datuak eta gero antolatuko dira klase egun eta ordutegiak.



● ZINEA

LGTBIQ+ komunitadearen gainean sensibilizetako sei film dakarz Zinegoak jaialdiak Igorrera

Bagilaren 26an, 19:00etatik aurrera proiektuko dira Igorreko Lasarte Aretoan sei pelikulak, fikzioak zein animazioak.

Asier Abrisketa

Zinegoak, 2004tik ospatuten dan Bilboko LGTBIQ+ Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia da. Kulturearen, zinemearen eta arte eszenikoen bitartez, LGTBIQ+ komunitadearen gaineko sensibilizazioa lantzeako tresna bat izateko helburua dauka. Baina Bilbon bakarrik ez geratuteko, ZG Hedapena ekimena be egiten da, jaialdia Euskal Herrian zehar zabalduz asmoagaz eta 47 herriren artean, Igorren egingo da proiektzioa.

Sexu, genero eta afektu aniztasunen gaineko begirada kritikoa eta konpromisoak bultzatuten daben lanak osotuten da programea. Aurten, 28 film labur egongo dira sekzio ofizialean eta horreetatik, sei ekarriko ditue Igorrera: bost fikzio eta animazio bat. Tartean dago *Ultramarino* film euskalduna, baina baita pelikula kataluniar, txinatar, AEB-txinatar, frantziar eta portugaldarrak be.

Ultramarino (Maren Zubeldia eta Silvia Guglielmotti, 2025)
Euskal Herria, 18 min.

Herriko jaiak dira eta Zazu, nerabezaren atarian bere nortasunaren bilda dabilena, bidekurutze baten dago. Aukeratu beharko dau: tradizioz zehaztutako rola bete edo bere sentimentuek aginduten deuseenari jarraitu.

● ANTZERKIA

Bitsa konpainiak *Haritik tiraka* kale antzerkia taularatuko dau Areatzan

San Juan bezperan egingo da ikuskizuna, sua izetu aurretik, plazan.

Asier Abrisketa

Bagilaren 23an, martitzena, sanjuanetako sua izetu aurretik kale antzerkia ikusteko aukerea egongo da Areatzako plazan. 19:00etan, sortu barria dan Bitsa konpainiak -Ivan Casado eta Ane Gebara- bere lehen ikuskizuna aurkeztuko dau, *Haritik tiraka*. Kale antzerki honek narrazioa, objektuen erabilera eta bio-



Ultramarino filmaren fotogramoa.

The Wind in Ash (Kun Sun, 2025)

Txina, 18 min.

Queer neska bat bere jaioterria bueltauko da, hileta batera joateko asmoagaz. Han, autoezagutzarako bidaia bat biziko dau eta amari buruz daukan pertzepzioa aldatuko jake.

Delay (Wang Han-Xuan, 2025)

Txina eta AEB, 15 min.

Aita txinatar bat bere seme heterosexualaren ezkontzara joaten saiatuko da, Parisera. Baina haren bidaia atzeratu egingo da ustebakoan.

Ferides (Alba Cros, 2025)

Katalunia, 18 min.

Birsortze bat gauaren erdian, Saóren eta Julianaren lehen topaketearen bitartez. Zaurgarritak

sunak eta sedukzioa alkarregaz nahastuz, bide egingo deuse etorkizun esperantzagarri bateri.

This Feminine Side (Alice Siniscalchi, 2025)

Portugal, 7 min.

Feminidadea, Lisboako queer aholtek eta multimedia arteak definituta eta berrasmauta.

Seuls les poissons mort suivent le courant (Christophe Gomes, 2025)

Frantzia, 10 min.

Camillek sei urte ditu, eta mutiko jaio zan arren, neskato sentiduten da. Inauterietan, printzesaz moztututa joango da eskolara, nahiz eta ez daben neskato moduan errekonozidu gura. Zuzendariak Camilleren amari deituko deuse, atzen konfrontazio baterako.

eta bestean ondo helduta duro bi. Bide laburren aukeratu eta arin egin eban jostun tailerrera buelta. Jositako bideetan auzokideak, lagunak, korapiloak eta isiltasunak topaiko doguz, errekaduak egitea ez baita edozer gauza. Egunkarietan agertuko ez diran personei izena eta ekintzei balioa ipinten deuse antezlana ikusteko prest bazagoz, egizu haririk tira!" dino dinopsiak.

● ONDAREA

Elexabeitiko San Migeletik Bilboko Arte Ederren Museora

Eleiz Museoak inozko Arratiako ondare erlijiosoaren katalogorik zehatzena aurkeztuko dau Zeanurin eta aurkikuntza interesgarriak egin dira ikerketan: Guadalupeko Ama Birjinaren margolan batek erakutsi dauan garrantzia eta beste pieza barri batzuk.

Asier Abrisketa

Bilboko Eleizbarrutiak bultzatuta, Eleiz Museoak lurraldeko Monumentuen Katalogoa egiten dabil; eleizak, ermitak eta honeen ondare arkitektoniko eta artistikoaren inoz egin dan katalogo zehatzena. Pasau dan urteko urrietan Nerbioi-Garaiko katalogoa argitaratu eben *catalogo-monumentaldioesisbilbao.com* webgunean. Bertan dagoz Zeberiko monumentu erlijiosoak eta oin, Arratia eta Ubideko txosten eta argazkien txandea da. Badabiz astiro-astiro argitaratuten.

Arratiako Monumentuen Katalogoa eta bertan egindako aurkikuntzak, bagilaren 26an aurkeztuko dira jenteaurrean Zeanuriko parrokiari, 11:00etan. Raquel Cilla Bilboko Eleiz Museoako zuzendariak begitun aurreratu dauanez, sano gauza interesgarriak agertu dira eleizaz eleiza eta ermitaz ermita egindako ikerketan. Batetik, ezaguna zan baina oin arte ikertu ez dan Guadalupeko Ama Birjinaren margolanak eukan garrantzia historikoa azaleratu dau ikerketeak. Bestetik, pieza barriak be deskubridu dira; horreek aurkezpenean aurkeztuko ditue.

Elexabeitiko Guadalupeko Ama Birjina

Ezaguna zan baina oin arte ikertua izan ez dan margolana Elexabeitiko San Migelen

egon da hainbat mendez. Miguel Cabrera (1715-1768, Mexiko) barroko novohispanoko maisuak margoztu eban koadrua 1754an, irudi guadalupanoen irudigile garrantzitsuenak. Sasoi hareetan Espainiar Inperioaren parte zan Mexiko eta Artea lotzean ditu hurrengo inskripzioagaz: *Según devoción de Don Francisco Antonio de Eguiluz, natural de Arteaga*. Oin, pieza zein marko originala barrizuten dabiz Eleiz Museoak eta Arte Ederren Museoak eta Arte Ederren Museoan laster egongo da ikusgai.



● ARRATIAKO ONDARE ASTEGOIENA

Areatza musika eta jantzaz beteko dau Aikok

Arratiako Ondare Astegoiena izenpean, jantza ikastaro ugari egingo dira bagilaren 27 eta 28an, gazteentzat doban.

Asier Abrisketa

Aiko Kultur Elkarteak, Areatzako Udalaren laguntzeagaz, Arratiako Ondare Astegoiena antolatu dau, bagilaren 27 eta 28an Areatzan egingo dana. Ondare inmateriale eta honen transmisioa izango dira jardunaldien ardatzak: "Gure kultura partekatua adierazpen bizia, komunitatea lotzean dauana eta belaunaldiz belaunaldi transmitiduten dana". Ondare erakusteko bakarrik ez, bizi, partekatu eta transmitiduteko dala sinistuta, jantzen gaineko ikastaro eta jarduerak ugari antolatu ditue.

Tailerrak, emonaldiak, erromeriak eta topaketak egingo dira eta izen-emotea badago zabalik *aiko.eus* webgunean. Plaza mugatuak dira eta ikastaro guztietan parte hartzeako matrikuleak 60 euroko kostua dauka, hilaren 20ra arte emon daiteke izena. Ha-ta guzti be, eta transmisioan eragiteko helburuagaz, Aikok doban eskainiko

ditu ikastaroak 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako.

Egitaraua

Bagilak 27, zapatua

10:00etan, *Arratiako Artexeren jota* (Larraitz Artetxe eta Sabin Bikandi).

11:30ean, *Erregelak: dantzaria eta musikaria jolasean, elkarren atzetik eta elkarri tiraka* (Luken Aranburu).

17:00etan, *Fuente Alamoko bolero eskola* (Pedro Jose Leandro).

18:30ean, *Jota Galiziatik* (Sergio Cobos).

22:30ean, afalosteko jantzaldirromeria Aikogaz.

Bagilak 28, domekea

10:00etan, *Tangoa Euskal Herrian* (Ines Uriarte).

11:00etan, *Jota eta fandangoaren estandarizazioa* (Patxi Laborda).



DUNBA

Areatzatik Sukarrietara

Areatzako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Areatzako eskolako ikasleak Sukarrietako UIHP programan parte hartzean gabiz, biodibersitatea eta ingurumenaren konserbazioa ardatz dituan egonaldi bat. Esperientzia honen bidez, Urdai-baiko ingurune naturala ezetuteko eta bertako ekosistemak sakonago aztertzeke aukerea izan dogu.

Egonaldian zehar hainbat urtekerak egin doguz, eta ekosistema desbardinak behatu eta aztertu doguz, besteak beste basoak, errekek, itsasadarra, padurea, hondartza... Jarduera horreen bidez, ekosistema bakotzak bere funtzio ekologikoa daukala eta guztiek alkarregaz oreka naturala osotzen dabela ikasi dogu.

Era berean, gizakiaren jardue-

rek ingurune naturalean izan leikien eragina aztertu dogu. Adibidez, trenbideak padurea erdibitzen dau, farolek hainbat espezie desorientau leikiez (batez be orientetako elementu naturalak erabilten dabazan animaliak), sorgailu eolikoek hegazti batzuen biziraupenean eragina izan leikie... Sukarrietatik oso gertu, Ontziola dago eta horrek aldaketa esanguratsuak eragin ebazan ingurunean: itsasontzien nabigazioa errazteko itsasadarraren hondotik harea ateraten zan, eta material hori padurearen gainean pilatzen zan. Prozesu horren ondorioz, hareatza bat sortu zan eta padurearen ezaugarri naturalak aldatu ebazan.

Padurako flora be ezetuteko aukerea izan dogu. Bertan hazten diran espezie halofito batzuk das-



tatu doguz, hala nola getoskea eta salikornioa. Landare horreek gatz-kontzentrazio handiko inguruneetara egokituta dagoz, eta gaur egun balio gastronomiko handia daukie.

Urtekerez gain, hainbat tailer

egin doguz: kosmetikea, zermikea, hegaztiarena, sukaldaritza, argazkigintza eta koadernaketa. Tailer horreen bidez ingurumenagaz, sormenagaz eta kultura jasangarriagaz lotutako ezagutzak eskuratu doguz.



Egonaldiaren helburu nagusiak ingurunea hobeto ezetutea, biodibersitatearen garrantzia jaubetzea, euskerearen erabilera sustatzea eta alkarbitza lantzea izan dira. Aldi berean, lagun barriak egiteko, ingurua esploratuko eta aisialdiaz gozatzeko aukerea izan dogu. Sukarrietako instalazio zabalek eta irakasle nahiz monitoreen hurbiltasunak esperientzia aberasgarri eta atsegina bihurtu dabe.

Azken baten, egonaldi honek natura-ingurunearen garrantzia hausnartzeko eta gure ekosistemak zaintzearen beharrezko zientziatiko aukera parebakoa eskaini deusku.

● AGENDEA

**BAGILAK 16
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

09:00etatik 14:00etara, bagilaren 25era arte, bagilaren 29ko jaietako barauskarriko izen-emotea zabalik udaletxean.

AREATZA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Arratiako Ondare Astegoienean (bagilak 27 eta 28), Aikoren jantza ikastaroetarako izen-emotea bagilaren 20ra arte *aiko.eus* webgunean.

11:00etatik 20:00etara, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 13ra arte.

BEDIA

16:30etik 19:30era, informazio gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

DIMA

19:00etan, espazio komunitario barriaren aurkezpena. Liburutegian.

Bagilaren 17ra arte, 2021 urtean eta aurretik jaietakoentzako Txumulu Xueta Pelota Klubeko 2026-2027 denporaldirako izen-emotea <https://labur.eus/bxumuluXueta> galdetegian.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

11:30ean, Mikro Irekia. Arratia BHI eta Poesia Hegalaria taldeak antolatuta. 105ean.

Bagilaren 19ra arte, ume eta gazteen Arantzarte Dantza Taldearen 2026-2027 ikasturterako izen-emotea <https://labur.eus/arantzarte> galdetegian.

Izen-emotea Eingon. 7 urtetik gorako umeentzat trikitexea, panderoa, perkusinoa, plazako jantzak eta kantua ikasteko aukerea. Informazio gehiago jasoteko edo izena emoteko 679 417 353 telefono zenbakian. Hilaren 30era arte.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

11:00etatik 19:30era, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 6ra arte.

UBIDE

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxil eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Helduen Jaietako Frontenis Txapelketan izen-emotea garagarriaren 15era arte 696 631 491 zenbakian WhatsApp bidez.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta eguenetan liburutegia zabalik.

Garagarriaren 12ra arte,

Sandonietako Kartel Lehiaketan proposamenak udaletxean aurkezteko epea. Oinarriak <https://labur.eus/zeberiojai2026> estekan.

**BAGILAK 17
AREATZA**

19:00etan, Areatzako energia komunitadea sortzeako lehen batzarra (Udalaren instalazio fotovoltaikoa herritarrek aprobetxetako aukeren azalpena). Udaletxean.

ARTEA

18:00etan, *San Juan garaiko mitoak eta ohiturak* berbaldia Juan Manuel Etxebarriaren eskutik. Kultur Etxean.

19:30ean, Jai Batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

DIMA

18:00etan, Zizetan mendi martxea antolatzeako batzarra. Udaletxean.

19:00etan, *Entrenamendu funtzionala* ikastarorako informazio eta ideen alkartrakerako batzarra. Udaletxean.

**BAGILAK 18
AREATZA**

19:00etan, *Botikak eta beste kontu batzuk* berbaldia, Areatzako botikako Arantz eta Leire farmazeutikoen eskutik. Jubiladuen lokalean. Uparan alkarteak antolatuta.

BEDIA

18:30ean, Uda Gaztearen gaineko batzarra. Eskoletan.

IGORRE

18:30ean, Izarren Hautsa akrobazia eskolako ikasleen 3, 2, 1... *Aurrera* ikuskizuna. Lasarte Aretoa.

LEMOA

18:30ean, udako solstizioko jaien inguruko berbaldia Asier Iturrateren eskutik. Kotxepin Kultur Etxean.

BAGILAK 19**ARTEA**

17:00etatik 20:00etara, Jaietako Kartel Lehiaketako irabazlea aukeratzeko erakusketea eta bozkaketea. Plazan.

BEDIA

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

**Pettiren kontzertua Arteako Herriko Bentan**

Juan Luis Perez Mitxelena "Petti" abeslari nafar ezagunak zuzeneko kontzertua eskainiko dau bagilaren 21ean, bere gitarreagaz batera, 13:30etik aurrera Arteako Herriko Bentan. Bere proiektu sano personalean euskerazko blues, folk eta rock musikea eskaintzen dau eta oin urtebete Herriko Bentan eskaini eban kontzertuagaz liluratuta, barrero konbidau dabe Petti.

"Springsteen, Johnny Cash, Mark Lanegan, Laboa edo Ruper maite badozuz agian gustura entzungo dozu egiten dodana. Gitarrea landuteko modu berezia erabilteko joera be badaukat afinazio arraroakaz eta kantu melodiko nahiz esperimentalak jorratzea be gustuko dot", azaldu eban orduan BEGITUN.

DIMA

Bariku-txiki. 19:00etan, Dimako umeek antzerki tailerrean sortutako *Desnotiziak* antzezlan. Amaitzerakoan sorpresa. Abaroan.

LEMOA

Eskubideak Danontzat Plataformaren jardunaldiak. 18:00etan, *Arrazakeria eta pribilegio zuria* berbaldia, Isabel Hernandez Castro (Mujeres Tejiendo Red) eta Marie Lucia Monsheneke (FAMEK). Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi 7. orrialdea. 10:00etan, podologia zerbitzua. Izena emoteko orria udaletxean.

**BAGILAK 20
AREATZA**

20:00etan, Melonius Tonk taldearen kontzertua. The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

Ailarak erakusketearen zabaltea. Ailarak zentroan.

ARRATIA

Errogatibea Urkiolara. 11:00etan, meza nagusia; oinez joateko: 06:00retan Diman eta 07:30ean Zeanurin; autobusez joateko: Bedia 09:00etan; Lemoa 09:10ean; Dima 09:25ean; Igorre 09:30ean; Arantzazu 09:35ean; Artea 09:40an; Areatza 09:45ean eta Zeanuri 09:55ean.

BEDIA

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

IGORRE

San Juaneko jaiak. 12:00etan, txupinazoa; gero, Ardi-txakur Lehiaketea eta Marmita Lehiaketako izen-emotea; 13:30ean, Igel Txapelketea; 14:30ean, marmiten aurkezpena; 17:30ean, bingoa; 19:30ean, mariatxiak; 21:00etan, erromeria Joxe Mari Mendizabalegaz; 00:00etan, berakatz-zopea danontzako.

LEMOA

Andra Mortorzaleen I. Kontzentrazioa. 09:00etan, izen-emoteak (20 euro: bazkaria, tragu bat, oparia eta errifea); 10:00etan, motor ibilbidea; 12:00etan, pilotuen haur-eskolearen erakustaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan,

motorzaleen jolasak; 18:00etan, Ruben Sevillaren *stunt* akrobazia erakustaldia; 19:30ean, zozketea eta ekitaldiaren amaieria.

Eskubideak Danontzat Plataformaren jardunaldiak. 11:00etan, *Bizikidetza-gatazka eta gorroto diskurtsoen aurkako erantzun kolektiboak* berbaldia, Gasteiz Anitza eta Eskubideak Danontzat Plataforma; 12:00etan, *Lemoako auzotarren esperientzia eta bizipenak* solasaldia, Agarreko auzotarrak eta Eskubideak Danontzat Plataforma. Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

**BAGILAK 21
LEMOA**

Udako Solstizio Jaiak. 19:00etan, asun pultserak; 19:30ean, umeentzako jolasak; iluntzean, sua, musikea eta jantzak.

BEDIA

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ZEANURI

Altuako jaiak. 12:00etan, txupinazoa; 12:30ean, jantzari eta txistulariak; 14:00etan, auzo bazkaria; 18:00etan, bola-jokoa.

BAGILAK 22**ARTEA**

17:00etan, *Ultimas voluntades* berbaldia. Kultur Etxean.

BEDIA

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

**BAGILAK 23
ARANTZAZU**

San Juan sua. 18:00etan, sua prestatu; 20:00etan, sardina-jana; 22:00etan, sua izetu.

AREATZA

San Juan sua. 19:00etan, Bitsa konpainiaren *Haritik tiraka* kaleko antzezlan plazan; 20:00etan, sardina-jana Zubizaran; gero, San Juan sua.

ARTEA

San Juan sua. 20:00etan, sardina-jana eta sua. Santamañen.

BEDIA

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

IGORRE

San Juaneko jaiak. 18:00etan, umeentzako jolasak Zaztaparrakaz eta arku tiro ikuskizuna; 19:00etan, sardina-jana eta Ardoa Barrura fanfarrea; 22:00etan, San Juan sua; gero, suziarik.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ZEANURI

Altuako jaiak. 20:30ean, sardina-jana eta txokolatea; gero, San Juan sua.

BAGILAK 24**BEDIA**

Bediako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

IGORRE

San Juaneko jaiak. 12:00etan, mezea San Juan ermitan; gero, herriko trikitulariak.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ZEANURI

Altuako jaiak. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria eta errifen zozketea.

BAGILAK 25**ARTEA**

09:00etan, jubiladuen alkarteak

antolatutako urtekerea Getaria eta Balentziaga Museora. Autobus geralekuan.

BEDIA

Garagarriaren 24ra arte, informazio gunearen udako ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.

LEMOA

Lemoa Harrobiko bazkideen Batzar Orokorra. 19:00etan, lehenengo deialdia eta 19:30ean, bigarrena. Kotxepin Kultur Etxean.

**BAGILAK 26
ARANTZAZU**

Arantzazuko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

IGORRE

19:00etan, Zinegoak Hedapena LGTBIQ+ tematikako film laburren jaialdia: *The Wind in Ash* (Kun Sun), *Delay* (Wang Han-Xuan), *Ferides* (Alba Cros), *This Feminine Side* (Alice Siniscalchi), *Seuls les poissons mort suivent le courant* (Christophe Gomes) eta *Ultramarino* (Maren Zubeldia eta Silvia Guglielmotti). Lasarte Aretoa.

ZEANURI

11:00etan, Bilboko Eleizbarrutiaren Arratiako Monumentuen Katalogoaren aurkezpena. Parrokian.

**BAGILAK 27
ARANTZAZU**

Arantzazuko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

AREATZA

Arratiako Ondare Astegoienean. 10:00etan, *Arratiako Artexeren jota* (Larraitx Artetxe eta Sabin Bikandi); 11:30ean, *Erregelak: dantzaria eta musikaria jolasean, elkarren atzetik eta elkarri tiraka* (Luken Aranburu); 17:00etan, *Fuente Alamoko bolero eskola* (Pedro Jose Leandro); 18:30ean, *Jota Galiziatik* (Sergio Cobos) eta 22:30ean, afalosteko jantzaldirerromeria Aikogaz. Izena emon behar izan da.

**BAGILAK 28
ARANTZAZU**

Arantzazuko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

AREATZA

Arratiako Ondare Astegoienean. 10:00etatik aurrera, Aikok antolatutako jantza ikastaroak: 10:00etan, *Tangoa Euskal Herrian* (Ines Uriarte); 11:00etan, *Jota eta fandangoaren estandarizazioa* (Patxi Laborda). Izena emon behar izan da.

**BAGILAK 29
ARANTZAZU**

Arantzazuko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ARTEA

17:00etan, *Ultimas voluntades* berbaldia. Kultur Etxean.

KO MI KI A

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA

GEROKULTOREAK BEHAR DIRA

Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeko garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Bagilaren 26, 27 eta 28an Arberatzen egingo dan EHZ Festibalerako sarrera bi.

2 Areatzako Aldamin jatetxeak emondako afaria lagun birentzako.

Axular Herriko Taberna (Igorre) Sebas Angoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUK 24** urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 IGORRE
94 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Boxarra egin eta txokonduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

IMOBILIARIA
Larrea
Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurak, txaletak...
ARRATIAKO BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!
Lehendakari Agirre, 8 behea - 94 631 80 04 - IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94 673 70 87
Tel: 609 79 40 54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

BEGITU

KAIKO, EUS NAIZ. EUSEBIO.

Eskuratu
•EUS domeinua
9 EUROAN.



EUSEBIO
PUNTU
•EUS

Erregistratzen laguntzeko,
eskatu hitzordua:
EUSEBIO.EUS

